



**HIZNET – Hizkuntza Plangintza Graduondokoa: Sakontze  
Egitasmoa**

---

**Euskararen aldeko ekimenen eragina. *Euskaraldia*  
helburu.**

---

**EGILEA: Arriola Fontecha, Urtzi**

**IRAKASLEA: Gañan, Manu**

**2018/2019**

## **LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ**

Euskal Autonomia Erkidegoan, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da oso, eta legeak hala aitortzen dio. D ereduak, antza, hizkuntzari loraldia ekarri dio, eta gero eta gazte gehiagok, etorkizuneko hiztunok, euskaraz daki. Aspalditik hona, halaber, euskara indarberritzeko ekimen ugari sortu dira, euskal hiztun gehiago irabazteko asmoarekin. Errealitatea, ordea, bestelakoa da, eta behagarria da aurrerapausoak emanda ere, oraindik hizkuntzaren benetako normalizaziorik eta sozializaziorik ez dela lortu.

Horren aurrean, lan honek zeregin izango du egungo egoera aztertzea Euskadiren gainean. Kasu honetan, euskara indarberritzera bideratutako ekimenak arreta gai nagusi izaki, finean, horiek bere normalizaziori eta biziberritzeari begira zinezko eraginik duten neurtzeko asmotan. Aurreko guztia aintzat hartuta, Euskaraldia ariketa sozialak garrantzi berezia hartuko du, eta ikerketa kuantitatibozein kualitatiboaren oinarria izango da.

Hitz gakoak: *hizkuntza indarberritzea, sozializazioa, ekimena, euskara, Euskaraldia.*

En Euskadi el euskera es, junto con el castellano, lengua totalmente oficial, y la ley así lo reconoce. Es dicho que el modelo D ha sido el impulsor tenaz del idioma, y cada vez hay más jóvenes entendedores de euskera; esto es, los hablantes del futuro. Asimismo, desde hace un tiempo a esta parte, se han creado valiosas iniciativas con el objetivo de lograr más vascoparlantes. No obstante, se puede apreciar que, pese al avance, la realidad es dispar y que no se ha obtenido aún una auténtica normalización y socialización de la lengua.

Frente a eso, este trabajo tendrá como objeto de estudio analizar esta situación en el marco del País Vasco. En este caso, siendo de interés principal las iniciativas dirigidas a la revitalización del euskera, en último término, con el fin de medir si estas tienen un verdadero impacto en/para su normalización y recuperación. Para todo lo anterior, la práctica social Euskaraldia cobrará una especial relevancia y será la base para la investigación cuantitativa y cualitativa.

Palabras clave: *revitalización lingüística, socialización, iniciativa, euskera, Euskaraldia.*

Au Pays Basque le basque est une langue officiel avec le espagnol et la loi reconnaît-le comme ça. On dit que le modèle D a été le promoteur tenace du euskera et il y a de plus

en plus jeunes qui sachent-le; c'est-à-dire les locuteurs du futur. De même, depuis longtemps jusqu'à ce jour beaucoup de initiatives ont été créées dans le but de gagner plus de bascophones. Cependant, on peut voir que malgré l'avancement la réalité est différente et une authentique normalisation et socialisation du basque n'a pas été obtenu encore.

Face à ça, ce travail aura comme thème d'étude analyser cette situation dans le Pays Basque sud. Dans ce cas, il étant d'intérêt principal les initiatives que sont dirigées à la revitalisation du basque afin de mesurer si elles ont un vrai effet en/pour sa normalisation et socialisation. Pour tout ce qui précède, la pratique sociale Euskaraldia aura une importance spéciale et sera la base pour la recherche quantitative et qualitative.

Mots clés: *revitalisation linguistique, socialisation, initiative, euskera, Euskaraldia.*

## **ESKERTZA**

Grina, arreta eta zehetasun handiko lana dugu esku artekoa, eta aztertutako gaiak puri-purian joko du luze. Lan guztia egiteko, lagun askoren laguntza eduki dut bidaide prestuena, eta honekin batera horiei eskerrak eman nahiko nizkieke, gizalegeak eskatzen duenez.

Hasteko eta bat, Euskaraldiari dagokion inkesta erantzuteko beta hartu duen bakoitzari eskerrik beroena ematea. Azken buruan, haien harri-koskorra lanera ekarri ezean, horrek ez zukeelako izango egun duen ganora. Erantzun dutenen artean, aipamen berezia egin nahiko nieke Euskaraldia Donostia plataformako arduradunei, elkar ezagutu gabe inkesta hiriburuko auzoetako euskara batzordeei bidaltzeko ardura hartu zutelako, laketasun handiz eta eskuzabalki.

Bigarrenik, jakina, Euskaltzaleen Topaguneko kideari, hots, Manuel Morenori nire eskerrik zintzoena azaldu nahi diot. Finean, inkestatik ateratako datuak harekin ondorioztatu ezik, gaur egun lanak duen jakintza-kutsua eta betetasuna ez zukeen inolaz ere izango. Horrekin batera, abagunea edukita bere lana azpimarratzea eta goratzea nahiko nuke, euskararen hondar-alearen garraiaketan gogor eta kementsu aritzen baita, euskaldun garenon mintzairaren hedapenean, hain justu.

Azkenik, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, lan honetan zuzendari izandakoari, hau da, Manu Gañani esker-ematea. Hutsegite eta oker guztiak gorabehera, hortxe izan delako ni gidatzeko eta lanerako nire akuilu bihurtzeko.

<b>0. <u>AURKIBIDEA</u></b>	
<b>1. Sarrera</b>	6
<b>2. Marko Teorikoa</b>	
2.1. Euskararen estatus juridikoa eta benetako egoera	7
2.2. Euskara indarberritzeko ahalegina	8
2.2.1. Indarberritzearen nondik norakoak	9
2.2.2. Indarberritzeko saioen etsenpluak	11
2.2.2.1. Korrika	11
2.2.2.1.1. Korrika Txiki	13
2.2.2.2. Mintzapraktika-programa	13
2.2.2.2.1. Elkarrizketariak	14
2.2.2.3. Kuadrillategi egitasmoa	14
2.2.2.4. Euskaraldia	15
<b>3. Metodologia</b>	
3.1. Ikerketa kuantitatiboa	
3.1.1. Inkestaren hezurdura	19
3.1.2. Partaideak	20
3.1.3. Datuen analisia	20
3.2. Ikerketa kualitatiboa	
3.2.1. Tresna eta bilakaera	21
<b>4. Emaitzak</b>	
4.1. Inkestaren inguruko emaitzak	
4.1.1. Egoera	21
4.1.2. Errealitatea	23
4.2. Euskaltzaleen Topaguneko kidearen solasaldiaren emaitzak	26
<b>5. Ondorioak</b>	29
<b>6. Bibliografia</b>	32
<b>7. Eranskinak</b>	
I. Eranskina	35
II. Eranskina	38

## **1. Sarrera**

Ohituak gaude entzutera aho askotatik euskararekin dagoeneko etxeko lanak egin ditugula gizaldi berrienak ere euskara mihian dutela jaioko direlako. Esan nahi baita euskararen egoera normalizatuta dagoela. Nola ez hori pentsatu, askok esango dute, euskal biztanle gehiagok euskaraz daki-eta, elebidun zein elebidun hartzaileen kopuruak gora egin du-eta –hiztun elebakarrenak behera bizkitartean–, aspaldi ez bezala EAEko hiru hiriburuak 2. gune soziolinguistikoan egonkortuta baitaude eta, gainera, euskararen estatus soziala hainbat hobea izaki.

Baina, zinez, duela 40 urte euskararentzat eta euskaldunontzat abian jarri zen plangintza sistematizatu hori, funtsezkoa gertatu izanagatik ere, ez da betirako irtenbide bihurtu gizaldi berriak euskaratzeari begira, erabilerak ozta-ozta egiten duelako aitzinera. Jakintza edukitze hutsak erabilera automatikoa ez du ekarri Euskadiko herri zein hiritara.

Horren aurrean, eta euskara hizkuntza nagusien menpeko egoeran murgilduta eta diglosia gorrian atzitura, aspaldi-aspalditik gaurdaino milaka ekimen eta egitasmo bete dira gure lurraldean, hiztun gehiago aktibatzeko asmoz eta hizkuntzarekiko atxikimendua herritar gehiagorengan pizteko asmoz: izan Korrika, izan Kuadrillategi, izan mintzapraktika-programak, izan Euskaraldia...

Itauna da orain, ziur asko, ekimen horiek ote diren, benaz, euskara biziberritzeko eta indarberritzeko tekla eta eraginkorrak, herri eta hiri askotan euskararen sozializazioa ezartzeko makulua, alegia, askorentzat, urteen talaiatik, erantzuna ezetza izan daitekeelako. Gurean, hori aztertzei eta ikertzei ekin diogu EAE mailan, eta Euskaraldia deritzon ariketa soziala izan da gure lanerako bizkarrezurra, hain zuzen. Izan ere, lehen edizioak ekarri duen arrakasta-maila handiagatik, ikerketa-gai oparoa eta esanguratsua izango zelakoan geunden.

Aurreko guztia miatzeko, ikerketa kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili dira. Kuantitatiborako, preseski, Euskaraldian parte hartutako hainbat pertsona ikertu ziren, lehendanik osatuta genuen galdetegia lagun. Kualitatiborako, aldiz, Euskaltzaileen Topaguneko kide bat elkarrizketatu genuen, Euskaraldian jantzia eta horretan lan egin duena, inkestetatik ateratako datuak bere jakintsun-ahalmenaren arabera baloratu eta iruzkindu zitzaizkion.

Besterik gabe, hortaz, aurrerantzean da proiektua, berezitasun handiez josia, soziolinguistikaren diziplina betiere ardatzat hartuta. Euskararen egungo errealitatearen ispilua eta salatua da, alafede, eta hura indarberritzeko egindako ekimenen inguruan, Euskaraldiaz, gehienbat, gehiago jakin nahi duenarentzat zuzendua doa.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1. Euskararen estatus juridikoa eta benetako egoera

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoak hala ebatzita, euskara hizkuntza ofiziala da EAEn, eta zuzenbideak bermea emanda, euskara edozein testuingurutan erabiltzeko aukera egongo da. Autonomia Erkidegoko lurralde osoan hedatuko da ofizialtasuna, horretarako tokian tokiko neurriak hartuz, behar izanda, eta hori baztertu gaberik inolaz ere. Euskara, izan ere, euskal lurralde eta erkidegoen ondarea da. Legezko aitortza hori bideratuko deneko lekukoa Estatutuko seigarren artikuluan dugu, honako hitzek hala adierazita: *“euskarak, gaztelaniarekin batera, izaera ofiziala izango du Euskadin, biztanleok ezagutu eta erabiltzeko eskubidearekin... EAEko erakunde komunek, horren aniztasun soziolinguistikoa aintzat harturik, bi hizkuntzen erabilera bermatuko dute...”* (BOE, 1979). Eta, eleen harira, hain justu ere, hizkuntzaren izaera bermatuko duen lan-esparrua eta, agidanez, leiala, eremu publikoa dugu, arlo hauek bitarteko, besteak beste: administrazioa, hezkuntza, justizia, komunikabideak eta eremu sozioekonomikoa (Zarraga eta beste, 2010).

Sisteman, beraz, euskara erabiltzea eskubidea eta abagunea da, eta balizko tresna probetxugarria ere bai. Nolanahi ere, ageriko errealitatea bestelakoa da, non-nahi. Euskarak, eta ozen esan beharra dago, lege-estatusa eduki arren eta, hala izanik, gaztelaniarekin batera legezko berdintasuna izan arren, materialki ez du erdietsi ez berdintasunik ezta orekarik ere euskal lurraldean (Zarraga eta beste, 2010).

Arestiko eremu publikoa, esate baterako, hasiera baterako euskararentzako gotorlekua eta habea izango ei zena, ez da ehuneko ehunean gure hizkuntzarentzako bidaide bilakatu. Zehatzak izatekotan, testuinguru oztopatzaile batzuetan, eremu publikoko zenbait esparrutan kostata atera du bizimodua euskarak, eta euskaradunak eta horren ondorengoak, askotan, bere hizkuntza-eskubideak urratuta azaltzen ditu. Edo ezin bermaturik, azken buruan. Beste hainbat esparru publikotan, euskarak bere eskubideak bermatuta eduki behar dituela jakin izanagatik ere, ez du lortu ganoraz biderik ebakitzea, administrazioan edo justizian gertatu den bezala (Gurrutxaga, 2014). Halaber, ohiko egunez egunekoan, gure hizkuntzak ebaki ezinik gabeko bide berbera darrai, azken hamarkadotan puska batean aurrera egin badu ere.

Jakintzak eta gaitasunak gora egin dute, behagarria denez gero, eta familia bidezko transmisioan aurrerabideak eman dira eta, halaber, hori sendotzeko egitasmoak bideratu dira. Alegia, gainera, euskal hiztuna erdararen hegemoniatik gerizatuko duen legerik eduki badauka irispidean. Baina, ostera, hori guztia ez da nahikoa izan, eta erabilerak bere horretan dirau, hazkunde baikorrik eduki gabe, erdarak euskarari itzal egiten, gaitasuna erabileratik zeharo urrun (Zalbide, 2015).

Eskolak, uste osoz belaunaldi berrien ezagupen teoriko zein praktikoak baietsiko zituen erremedioa izango zelakoan, ez du euskararen hondar-alea garraiatzen eta hedatzen bete-betean asmatu. Behintzat, sozializazioan. Euskara eskola eremuko hezurdura bilakatu da, sostengu hutsa; eta horren adibide da 2036 urterako 24 urtetik beherakoek gazteria euskaldun osoaren % 83,4 osatuko duten datua, Euskal Estatistika Erakundeak aurreikusita (Aморrortu eta beste, 2016). Aitzitik, ezkutuko mezu asaldagarria da gazteria euskalduna izango dela jakintza eta ezagupenaren kontuetan soilki, erabileran aurrera egiterik ez baita begiztatzen. Finean, euskara egoera informaletarako produktu baliagarritzat ez da jo eta ez da jotzen, eta sozializatzerako orduan, esan bezala, erreminta eraginkortzat eta apropostzat ere ez. Eta zenbait lekutan, beharbada gero eta gehiagotan, ez helduentzat ez gazteentzat ere.

Tamalgarriena, neurri batean, hortxe dator. Euskararentzako plangintza sistematizatu bat abiatu zeneko berehalako hartan, etorkizuneko gazteak ziren horren jomuga eta arreta gai, eta egun, aldiz, nerabeek erdarara jotzeko joera dute (Joly, 2007). Eta horren hautua are agerikoagoa da testuinguru oztopatzaileetan. Horren atzealdean euskara formala, aspergarria –eskolakoa– eta, kasuan kasukora, umetia denaren ideia dago, eta erdara, berriz, heldutasunarekin eta olgetarekin uztartzen dute (Zabaleta, 2007). Gazteak, halaber, bere gaztetasuna aditzera eman nahi du besteen aurrean, eta horrek hizkuntza inplikaraztea dakarkio. Horretarako, euskara, itxuraz, ez omen da behar adina egokia talde-nortasuna azpimarratzeko (Amonarriz, 2007).

## **2.2. Euskara indarberritzeko ahalegina**

Euskararentzat, hizkuntza gutxitua eta diglosikoa izaki, erdararen arrastoa jarraitzen ibiltzea eta jendearen mihietan finkatzerik ez izaterik, aurreneko atalean azertu bezala, zorigaitzezko berria dela aipatzea dagokigu. Eta berriak luze jo du aspalditik hona. Hala ere, euskarak urteotan egoera ankerrean bizi izateak eta demolinguistioki ahul ibiltzeak (Zalbide, 2015), erabilera, ordezkapen linguistiko, ospe-galtze kontu eta jazarpen aldetik, hala nola mobilizazioa eta alde agertzea ekarri du. Eta alde egite horrek zenbait “eragile” tartean sartu ditu.

Lehendabizikoz, euskal hiztun bakoitzaren (eta ez beti euskaradunaren) laguntasuna eta ahalegina azaldu dira armari euskarak, nolabait eta apur batean, hegan egitea lor dezan, eta bakoitzaren harri-koskorra lanera ekartzea hizkuntzari aukeran etorri zaio. Berton, euskararen aldeko erakundeak eta koordinakundeak kokatzen dira.

Horrekin batera, hizkuntza-politika eta plangintzaren eremuan, legearen bozeramaile bilakatutako erakunde publikoak daude. Egia bada, azertu bezala, oraindik zinezko normalizaziorik ezartzea eta sozializaziorik ez dutela lortu, baina ukaezina da, berebat, neurri batean euskara aurrera egitera lagundu dutela eta euskarak hortik edoski duela. Azken batean, euskara bizirik atera da hura



ikasi, irakatsi eta erabili beharrekoan, eta aitzinera begiratu ahal izateko pizgarri gertatu dira; hots, belaunaldi berriok euskaraz hezteko.

Aurrekoa gutxi balitz bezala, hizkuntza-eskubideen urraketari buru egiteko egiten dute lan, euskaradunari aitortzen zaizkion eskubideak zapuztekotan, hura lepoan hartzeko eta bere ahalak ziurtatze aldera: Herri-defendatzailea edota Ararteko daude, eskuarki eskubide orokorrei begira, eta ELEBIDE edota *Euskararen Telefonoa*, euskalgintzaren baitan euskararentzat zehatz-mehatz zuzendutakoak (Zarraga eta beste, 2010).

Alde agertzearen atzealdetik, hiztunen eta erakundeen ekarpenaren batuketaz normalizatzeko eta indarberritzeko ahalegina eraiki egiten da, eta horrek dakartzan ereduak, egitasmoak, ekimenak eta abarrak abian datoz. Hizkuntza indarberritzeko inizatiba da euskarari begira herritar bakoitzaren laguntza eta eustazpiarentzako akuilua, euskara bizitzako edozein testuingurutan normaldu, indarrak berri eta bizkortzeko ideiarekin. Erakunde publikoek beregain normalizazio prozesurantz jotzen dute neurriekin, hiztunekin batera hizkuntza piztu eta indarberritzeko helbururantz joz.

Indarberritze horren bidez, euskararen ordezkapen linguistikoa gelditu eta hura zabaldu eta erabiltzea da asmoa, irabaz dezan galduta duen “soziokulturalki autoerregulatzeko ahalmena” (Zalbide, 2015, 21 or.). Indarberritze horretarako, jarraitu beharreko nondik norako teorikoak leudeke, hizkuntza bat biziberritzeko orduan zer esan handia dutenak. Bestalde, dagoeneko martxan jarritako ereduak eta ekimenak liriateke garrantzizkoak miatzea, horien bide berbera jarraitzeko.

Aurrera eramandako ekimenen dimentsioak honakoak izan daitezke: tamaina hein batean txikiagokoak eta finkatuak (lehen begi-kolpeko jolas tailerrak, Euskal Udalekuak, Gaztetxokoak, besteak beste) eta tamaina handikoak, denboran aldian behin sortutakoak eta, oro har, erantzun masiboaren bila doazenak. Azken horiek, edonola ere, finkatu daitezkeen arren. Gurean, saioei dagokienez, aztergai izango dira tamaina handikoak eta horren baitan talde-mailari eta pertsona-mailari dagozkienak, makro mailakoak alde batera utzita (EBPN, Bai Euskarari...) (Zarraga eta beste, 2010). Saioak, hain justu ere, Korrika martxa, Kuadrillategi egitasmoa, Mintzapraktika-programa eta **Euskaraldia** ariketa soziala izango dira, eta azkena geroko azterketarako eta ikerketarako oinarri izango da. Horren aurretik, hizkuntza bat indarberritzeko oinarrien berri emango da.

### **2.2.1. Indarberritzearen nondik norakoak**

Hizkuntza-indarberritzea edo RLS (*Reversing Language shift*) hizkuntza-ordezkapenaren/*language shift*aren aurrera egitea eten eta egoera aldatzea da. Eta, horretarako, hiztun edota esparru gehiagotara heldu beharra dago (Zarraga eta beste, 2010).

Hizkuntza-komunitate elebidunetan, hizkuntzen arteko harremana egonkorra izan daiteke askotan, baina, halaber, aldagarria; besteak beste, emigrazioaren, konkista edo inbasioaren, industrializazioaren, hori erabiltzeko debekua eta abarreko zioen eraginez. Euskarak, hain zuzen, horietako batzuk bizi izan ditu gertutik, eta hizkuntza ordezkapenaren/*language shift*aren prozesuari eutsi egin behar izan dio Euskal Herriko hainbat tokitan.

Ordezkapen linguistikoari dagokionez, hizkuntza batek beste bat ordezkatzeko duenean gertatzen da, hots, hizkuntza baten funtzioak hizkuntza menderatzaileak hartzen dituen eta hizkuntza horrek baliagarritasuna galtzen duenean. Beste modu batera, hiztun talde bat zenbait funtziotan X hizkuntzatik Y hizkuntzara sistematikoki igarotzen denean (Mesthrie eta beste, 2000). Hori apurka-apurka gertatzen da, erabilera esparru batzuetatik hasita, hala nola, sendian, lagunartean, auzoan, lanean, ikastetxean, elizan edo administrazio publikoan, eta hizkuntza-gaitasun orotan dauka indarra, ulermenean, idazmenean, irakurmenean eta mintzamenean, alegia (Zarraga eta beste, 2010). Horrek guztiak hizkuntzaren desagertzea<sup>1</sup> ekar dezake maiz (Mesthrie eta beste, 2000).

Hizkuntzaren egoera diagnostikatu eta "jausialdian" dagoela egiaztatuta, hizkuntza indarberritzeari ekin beharra zaio arrapaladan. Horretarako, Fishman soziologoa familia bidezko transmisioaz mintzatzen da, eta haren esanetan, hizkuntzaren belaunaldi arteko igorpena nahitaezkoa da plangintzak etorkizuna izan dezan (Zarraga eta beste, 2010).

Estatubatuarraren ideiarekin batera, azpimarragarria da *hizkuntzaren arnasmuneen* edo *breathing space* delakoak. Horiek eremu geografiko batzuk dira eta, haietan, hizkuntza gutxitua nagusi da: ohikotasunez hitz egiteko, transmisioa gertatzeko, etab. Egoera aztertu da, eta hizkuntza biziberritze aldera horiek zinez beharrezko gertatzen direneko ondorioa atera da (Zarraga eta beste, 2010). XX. mendeko globalizazioarekin eta "berrikuntza soziokulturalarekin edota integrazio politiko-operatibo zein ekonotekniko bortitzekin" (Zalbide, 2015, 21 or.), gero eta *arnasmune* gehiago desagertzeaz daude edo kaltetu dira, baina buelta eman eta biziberritzea abiarazteko horien premia dago.

*Arnasmuneekin* batera, *language maintenance*aren ideia agertu behar da. LM hizkuntza gutxiagotuko hiztunek horrekiko duten atxikipenari deritzo, politikoki hizkuntza menderatzailearekin ukipenezko-egoera jarraituan egonda ere eta horrek presio kulturalak eragin arren (Abdelhadi, 2016). Hitz gutxitan esanda, hizkuntzaren eguneroko erabilera arrunta, lagunartekoa eta ohikoa gertatzeari. Hori biziki premiazkoa da balizko hizkuntza aldaketaren mehatxuari aitzin egiteko eta, jakina, hizkuntza biziberritzeko bidean (Benrabah in Abdelhadi, 2016, 4 or.), hizkuntzaren goreneko mailak eta gaitasunak ez duelako transmisioa bermatzen; egunerokoak eta hartu-emanekoak, berriz, bai.

Eguneroko hartu-eman horientzat, hain zuzen, jarreraren auziak sekulako erantzukizuna izan dezake honetan halaber, ikertu egin delako ukipenezko-egoera batean hizkuntza batean mintzatzeko, hori alboratzeko edo ikasteko garaian jarrera *integratzaileek* eta *instrumentalek* eragin osoa daukatela

(Zarraga eta beste, 2010). Jarrera *integratzaileetan* ardaztuta, hori garatuta dutenek euskara beste euskaldunekin hitz egiteko erreminta gisa ikusten dute. Kasu horretan, etorkizunean euskaldun horiekin dituzten harremanek eta hartu-emanek aurrera segituz gero, jarrera *izanarazlea* har dezakete, eta horrek hiztun horrengan euskara areagotzea eta erabiltzea ekarriko luke, beharbada, betiko (Larrañaga, 2003). Eta, alegia, hizkuntzaren biziberritze prozesurako sostengu bihurtuko da.

Azkenik, jakina, euskararekiko motibazioa piztera eta horren aldeko jarrerak suspertzerazuzendutako ekimenak edo egitasmoak daude, ikusi bezala hizkuntza ez dakitenek hori ikastera sustatzeko, dakitenek egunerokoan erabiltzeko edota hori hobetzeko, eta abar. Motibazioek, jarrerak eta abarrek eragin handia izan dezakete egoerak aldatzeko, eta edozein ekimenek aldeko jarrerak sortuz gero, hizkuntza indarberritzeko habe bilaka daiteke (Zarraga eta beste, 2010).

Euskarari dagokiolarik, hura indarberritzeko prozesua zabala eta denbora aldetik luzea izanagatik ere, azken hamarraldietan gutxika biziberritzen ari dela aipa genezake; are gehiago EAEn. Gaur-gaurkoz 35 urtetik beherakoak, adin-talde guztien artean, elebidunen proportziorik nagusiena dira, eta ekarpen txiki asko egon dira horren atzetik (*Aizpurua, Jon: Hizneteko apunteak*).

## **2.2.2. Indarberritzeko saioen etsenpluak**

Lehentxoago aipatu bezala, jarraian aztertuko dira talde-mailari eta pertsona-mailari dagozkion saio batzuk. Horakoak euskara indarberritzeko bideratu ziren, euskal hiztun komunitatea handitzeko leloaren pean (Zarraga eta beste, 2010), eta emaitza pozgarriak ekarri zituzten lanera. Horiek antzinasunaren arabera lerrokatuta azaltzen dira, eta adierazi guztiak EAEn egin direla eta horietako batzuk Euskal Herri mailan:

### **2.2.2.1. Korrika**

Korrika Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria zeharkatzen duen oinezko lasterketa handia eta irekia da, geldidune bakoa, erreleboz osatuta kilometro bakoitzeko. Lasterketa horretan, adin guztietako korrikalariak, emakume zein gizonak, zazpi lurraldeetatik zehar<sup>3</sup> ibiltzen dira etengabe mugituz, *lekuko*<sup>2</sup> abiaburu. Azken horrek urte bakoitzean *lelo* ezberdina gordetzen du baitan. Kudeaketa orokorra AEKren zeregina da (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea), baina lekuan lekuko eragile ezberdinen laguntasuna ere badago: auzo elkarteena, alderdi politikoena, emakumeen batzarrena, ekologia batzordeena, enpresa batzordeena, zenbait hedabiderena eta abar.

Lasterketa martxoa eta apirila bitartean egin ohi da, baina, behiala, batez ere, hasierako urteotan, udazkenean edota maiatzean egiten zen. Lehendabiziko Korrika Oñatin, 1980. urtean, ospatu zen, eta ordutik gaurdaino 20 edizio baino gehiagotara iritsi da. 2 urtean behin egiten da hori, eta orotara 2.000 kilometro baino gehiago hartzen ditu.

Korrikaren helburuak, oro har, hiru dira (bigarrena helburua eta zergatia izaki):

- AEK-k Euskal Herri osoan euskara sustatzeko eta garatzeko egiten duen lana aditzera ematea.
- Jendea euskara ikastera edo hori hobetzera bultzatzea. Aspaldi gaurkoan baino gehiago, hori bai, Euskal Herrian euskara desagertu edo bere erabilera hagitz gutxiagotzearen beldurra egon da, batik bat biztanlegune jakin batzuetan. Beraz, garrantzitsutzat jo da hura zaintzea, babestea eta horren alde agertzea, eta horretarako funtsezko ekitaldia Korrika dugu. Azken finean, ekitaldia taldean izateak indar handia dakar berekin, eta horrek dakarren berotasuna luzatzea eta eguneroko ekintzetara eramatea xede da, jarraitzaileak eskuratuz eta hizkuntza ikasiz hura berreskuratzeko prest dauden kideak lortuz, alegia.
- Euskara sustatzeko lanarekin segitzeko aldezipena lortzea, diruzko laguntzen bitartez (kilometroen salmenta, txapak edo eranskailuak saltzea, eta abar). Inondik inora ere ez bada helburu nagusia, al bait diru gehienek erdiestea nahi dute Korrikaren finantzaketa taldekoek.

Korrika helburu horiei jarraiki egin izanagatik ere, esan beharra dago ekimena euskal batasunaren metafora bihurtzen dela, bat egiteko aukera eta hori, bide batez, herri, eskualde edo norbanakoarentzako aldarrikapen tresna. Ez da hutsean ekintza kulturala. Sortzetik gaurdaino, besteak beste, lan-arloko aldarrikapenak eman dira, horiek batez ere 80ko hamarkadan (emigrazioa Euskal Herrian); politikoak (presoak eta amnistia); ondare artistiko eta kulturalaren arlokoak (laguntza eskasa jasotzen delako aitzakian); linguistikoak (jakina euskarari dagokionez); eskola- eta hedabide-arlokoak (horiek gehienbat Iparraldean); eta abar.

Aldarrikapenentarako modua bada ere, Korrika betiere jai-giroan ospatu izan da. Korrika egite berak aditzera ematen du kirol- eta jai-izaera, eta lekukoaren bitartez jendea elkar topo egin eta elkartu daiteke, bidenabar komunean duten lurraldearen inguruko kontzientzia batera hartuz. Ez da lasterketa lehiakorra, eta asmo bakarra lekukoa helmugara iristea da. Gainera, helmugarako hiriak festa hartzen du egun osoan zehar ekitaldi ezberdinekin.

Azkenik, umeek ekimen honetan hartzen duten protagonismoa azpimarratu beharra dago, jakina delako umeen euskarazko eskolatzea bermerik handiena dela hizkuntzaren biziraupenarentzat. Horiek Korrikaren parte dira helduekin batera, aldi berean parte hartuz eta lurralde berbera partekatuz. Herriaren biziraupenari begira, umearen-helduaren harremanaren eta belaunaldi-loturaren bidez denboran zehar hizkuntzak duen jarraipena adierazi nahi da, eta iragana orainaldian txertatuta aditzera ematea bilatzen da.

(Del Valle, 1988)

### **2.2.2.1.1. Korrika Txiki**

Umeen protagonismoa hizpide, haurren Korrikarako bigarren aukera Korrika Txikia da. Hori hiri eta herri askotan ospatzen da Korrika ofiziala igaro eta aurreko egunean edo egun berean. Egiazko Korrika errepikatzen da, baina egokitutako eskala batean umeen eskumenean eta hori ulergarri gerta dakien. Lurralde bateko ibilbidea probatzen dute, leloak batera esaten dituzte, beren pankartak dakartzate eta lasterketak duen hasieran zein bukaeran parte har dezakete.

Beraz, helduen Korrikan sartu ez baina esperientzia bere osotasunean bizi izaten dute miniaturan eta eskala txikian. Esan nahi baita haur unibertsoa sortzen dutela helduenean oinarrituz. Ikastolak zein eskola publikoak dira partaide, eta jai-giro handia sortzen da halaber. Umek asko gozaten dute lekukoa daramatenean edo pelotoiaren parte direnean, eta zazpiki oso egoten dira korrikatxoan izan bitartean, lehen eta gero (Del Valle, 1988).

### **2.2.2.2. Mintzapraktika-programa**

Mintzapraktika-programei lehenbizikoz 1993. urtean ekin zitzaien, Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkartea sustatzaile izaki, eta, ordutik gaurdaino, Euskal Herri osoan zehar zabalduta da ekimena, gero eta parte hartzaile gehiagorekin (Loidi, 2019). Izendapenari dagokionez, mintzapraktika-programen izenak, tokian tokikora, askotarikoak dira: Berbalagun, Mintzakide, Mintzalagun, Solaskide, eta abar (Zarraga eta beste, 2010).

Programa horien oinarria da euskaraz mintzatzeko usadiorik edo aukerarik ez duten pertsonei euskara erabiltzeko, hizkuntza ohitura hartzeko eta euskara-mailan aurreratzeko aukera eskaintzea (batik bat hitz-jarioan). Horretarako, norbanako horiek euskaraz solastatzeko ohitura dutenekin elkartu ohi dira (Zarraga eta beste, 2010). Lehendabizikoek *bidelari* dute izena, eta bigarrenek, ostera, *bidelagun*. *Bidelariak* eta *bidelagunak* tarteko, taldeak sortzen dira, oro har, hiru, lau edota bost pertsonarekin, eta beren hartu-emanetan gustuko dituzten jarduerak egiten dituzte, astean behin gutxienez (Zarraga eta beste, 2010). Finean, guztiak aisialdian du garapena ohiko eskola formalen aldean (Zapata, 2007).

Programan parte hartzeko gauza izan direnentzat eta ausartu direnentzat, hainbat arrazoi eta pizgarri egon daitezke atzean. Arestian aipatutakoa egitasmo honetan parte hartzeko arrazoi nabarmenena da, hots, euskara erabiltzea eta euskara-mailan hobetzea baina, ordea, bada bestelako arrazoirik honetara gerturatzeko: askotan teoriak ikasitakoa praktikan –kalean– jarri nahi izateak bultzatuta etortzea; besterik gabe harreman sare berrien bila joateak; lagunduko dutelakoan, askok euskararen normalizazio-prozesuan beren harri-koskorra ekarri nahi izateak; eremu profesionaletik edo formaletik harago, euskara olgetako ingurugiroan eta giro informalean hartu eta erabili nahi izateak; lagun

euskaldunak eduki nahi izateak; *jarrera integratzaileak* direla medio; eta, besterik gabe, sozializatzeko adiskideen bila gerturatutakoak (Zapata, 2007).

Dena delarik ere, parte hartzeko zioa, mintzapraktika-programaren helburuak argiak dira: hiztun euskaradunak gehiago izatea; ingurugiro informaletan euskara komunikatzeko tresna erabilgarritzat hartzea eta transmititzea; euskararekiko atxikimendua piztea, atsegintasuna abiaburu; euskararentzako toki berriak aurkiaraztea, hots, gunen informalak; euskara erabiltzeko sare berriak egitea, euskararentzako sare naturalak sortze aldera. Helburu horiekin guztiekin, euskaraz hitz egiterako orduan eragin handiena duten alderdietan jartzen da arreta, eta harreman pertsonaletara iristeko aukera dago, euskararen mesedetan (Zapata, 2007).

Mintzapraktika-programaren azken aipu gisara, azaldu programa teknologia berrien mugimendura egokitu dela eta *e-mintzapraktika* edo *Mintzanet* modukoak sortu direla zuzen-zuzenean geratzeko paradarik edo erraztasunik ez dutenentzat (Zarraga eta beste, 2010). Azaldu, orobat, Euskal Herri mailan *Mintza Eguna* ospatzen dela urtean behin bidelari eta bidelagun guztiekin, tamaina handiko ekitaldia izaki (Zapata, 2007).

#### **2.2.2.2.1. Elkarrizketariak**

Aspaldi ez dela, bestelako mintza programa bat antolatzeari ekin zitzaien: Elkarrizketariak. Programa horrek Mintzalagunak dituen helburuekin bat egiten du, berdina da, eta ingurugiro informalean garatzen da. Finean, biak ala biak programa osagarriak dira. Hala ere, elkarrekiko ezberdintasunik ere badute. Mintzalaguna euskarazko 6. mailatik gorakoentzat bideratuta da, baina hizpide duguna A1. eta A2. mailakoentzat, hots, euskara ikasten hasi berri direnentzat. Halaber, Mintzalagunekook gutxienez astean behin elkartu beharra dute, eta Elkarrizketariakook, aldiz, nahiko dute hamabost egunean behin (Ochoteco, 2018).

#### **2.2.2.3. Kuadrillategi egitasmoa**

Kuadrillategi egitasmoa 2000. urteaz geroztik hasi zen abian, eta Pasaia izan zuen sorlekua. Denboraren poderioan, hori zabalduz joan da hainbat herritan zehar. Lan horren atzean, besteak beste, Kuadrillategi Ikerketa elkarte eta Aholkularitza Elkarte eta egitasmoa garatu den toki bakoitzaren Euskara Zerbitzua eta Euskara Elkarte egon dira (Egizabal eta beste, 2004).

Egitasmoari dagokionez, xede doia eta argia du: gazte koadrila edo lagun-taldeak euskalduntzea, talde horien artean euskararen erabilera bultzatzea eta areagotzea, alegia (Egizabal eta beste *in* Zarraga eta beste, 2010, 281 or.), kalean eta ingurugiro informalean euskara zabaltzeko eta erabiltzeko dagoen zailtasunaren aurrean. Egitasmoaren berezitasuna lagunarteekin lan egitea da, eta

ez, aldiz, banakoekin (Jauregi, 2000). Kuadrillategi aisialdiaren baitan kokatzen den proiektua da, izaera ludikokoa, eta horrekin batera abal pedagogiko eta metodologiko bat gordetzen duena (Egizabal eta beste, 2004).

Burubidean parte izateko, gazteak taldeka sartu behar dira horretan, eta zenbait baldintza bete behar dituzte halaberrez, eta beste hainbat konpliztea gomendagarri gerta lekieke (Zarraga eta beste, 2010). Nahitaezkoen artean, honakoak daude: ekintzan parte hartzeko aurreneko prestutasuna azaldu behar izatea; taldekide guztiek euskaraz jakin behar dutela edota gaitasuna eduki behinik-behin, B edo D eredukoak izanik, elebakarrik egoteak zapuztuko lukeelako euskalduntzea; taldearen baitan “aitzindaritz” euskaradunek (nolabait egitasmorako lehendabiziko entsegua hartutakoek) hartzea; eta gazte taldeak testuinguru mesedegarrian bizitzea, esan nahi baita ingurugiro euskaldunean. Nahitaezko ez baina gomendagarri dagokienez, honakoak daude: aurretik datorkien erronka eta burubide berri hori nahigarritzat hartzea, taldea euskaratzeko zinezko entsegurik egon dadin; erronka, erronka den heinean, egingarri ikusi behar duela gazteak eta ez neurrigabea, bere burua ez etsitzeko eta euskalduntzeari itxaropenez begiratu ahal izateko (Egizabal eta beste, 2004).

Baldintzak betez gero, taldeek arautuko dute beren hizkuntzazko jokabidea eta erabiliko duten hizkuntza, betiere euskara erabiltzeko esfortzu-prestutasuna azaldu behar dutelarik. Horrela, saiakeren bitartez euskaraz hitz egitea automatizatu ahalko dute (Egizabal eta beste, 2004) eta hizkuntz ohitura aldatu. Taldeek dinamizatzaile-ikerlari bat izango dute bidaide (Jauregi, 2000), eta dena ondo badoa, lagun-taldea euskalduntzeko bidean sartuko da.

2001-2003 urte bitarteko Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak aintzat harturik, egitasmoak emaitza onak lortu zituela frogatu zen, hain zuzen, euskararen erabilera handiagotuz, edozein testuinguruan: euskararen aldeko joera azaltzen zuten gazteekin, joera agerikorik ez zutenekin eta erdararako joera zutenekin (Egizabal eta beste, 2004).

#### **2.2.2.4. Euskaraldia**

Euskaraldia herritarrak motibatu, eragin eta ahaldunduko zituen ariketa soziala izan zen 2018an. Ekimen hori zeharo inklusiboa zen, eta, hala, 16 urtetik gorako herritar orok euskaraz behintzat ulertuta parte har zezakeen. Ekimena 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen, Euskal Herri osoan milaka lagun biltzeko aurreikuspenaz (Illaro eta beste, 2018). Hori lehendabiziko edizioa izan zen, eta inpaktu eta eragin handiko ekimena suertatu zela berretsi ahalko zen geroago.

Euskaraldia hezurtzeko bizkarrezurra herritarrak eta erakundeak<sup>4</sup> izan ziren, eta horren araberrako helburuak ardaztu ziren, banakoen eta entitateen inplikazioaren bila (Palacios, 2018). Ekimenak xede zuen norbanakoak aktibatzea (jarreran eragina izateko aurreneko baldintza) eta herritarrok euskaraz

gehiago aritzea, euskaraz mintzatzen eta ulertzen dutenen artean, horien ohiko eremuetan eragina izanik: lagunartea, familia, lantokia edo ikaste-esparrua, edota hurbileko ezagunak, besteak beste (Illaro eta beste, 2018). Jendearen hizkuntza ohituretan esku hartzea eta aldatzea, euskarazko praktika linguistikoak suspertzea eta inertziak apurtzea bilatzen zen (Palacios, 2017), hasiera batean gogaikarria gerta zitekeena arau sozial bilakatzeko asmoz. Ekimenak hala bultzatuta, halaber, norbanako askok beren hizkuntza jarrerez hausnartzera eta beren sinesmenak aldatzera jo zen (Illaro eta beste, 2018). Erakundeei zegokienez, edozein motatakoak izaki, herritarren euskarazko praktika linguistikoak babestea eta sustatzea bultzatu zen, horretarako neurriak har zitzaten (Palacios, 2017).

Arestiko helburuak betetzeko, herritar parte-hartzaileak 11 egunez *Ahobizi* eta *Belarriprest* bihurtu ziren, bata edo bestea zireneko ikurra soinean eramanda, eta rolaren eskakizunen arabera jokatu zuten:

**Ahobizi:** Euskaraz hitz egiteko aukeraketa egin zuen (Mtz. de Lagos, 2018). Rola hartutakoak euskaraz bazekien edo erdiz-erdiz zekien, baina azken horrek prest ikusten zuen bere burua euskaraz komunikatzeko. *Ahobiziak* euskaraz bizi nahi zuen/du, batzuk arrazoi ezberdinengatik beren egunerokoan erdaraz aritu arren. *Ahobizia* euskaraz ulertzen zekien orori hala solastatuko zitzaion 11 egunetan, edonoiz eta edonon, ahalik eta jende gehiagorekin: gainerako *ahobiziei*, *belarriprestei* eta euskaraz ulertzeko gai zirela ezagutzen zituenei. Azken bi horiek erdaraz jarraituta ere, euskaraz ulertuz gero hala jarraituko zuen. Ezezagunei zegokienez, aurreneko hitza euskaraz egingo zien eta, euskaraz zekitela ziurtatuta, hala segituko zuen.



**Belarriprest:** Euskarazko ulermena duela bermatzen zuen (Mtz. de Lagos, 2018), baina bestelako arrazoiak zirela-eta ez zuen eskuarki euskaraz jarduten: mintzatzeko ahalmenik edo konfiantzarik eza zuelako, oro har. Alabaina, euskaraz bizi nahi zutenei/dutenei beren nahia aitortu nahia zien eta begirunea erakutsi ere bai (Illaro eta beste, 2018). 11 egunez bere konpromisoa zera izan zen: *ahobiziei* edo euskaraz zekienari euskaraz ulertzen zuela aditzera ematea eta, hala, berekin euskaraz jarduteko eskaera luzatzea, ondoren hark berak euskaraz zein erdaraz jarraituko badu ere. Ezezagunei zegokienez, bere aurreneko hitza euskaraz egingo zien.

Azkenik, azaldu rol horren sorrerarekin “ulermenari duen balioa aitortu nahi izan zitzaiola” (Mtz. de Lagos, 2018, 20 or.).





**Bihotzgoxo/Irriprest:** Euskaraz ulertzen ez zuenak, erdalduna denak, baina ingurukoek euskaraz hitz egitea estimatzen zuenak hartuko zuen rol hori. Horrela, 11 egunez pozarren azalduko zen *ahobiziak* nahiz *belarriprestak* euskaraz zuzentzen zitzaizkionean eta *ahobiziak* taldean euskaraz solastatzerakoan.

Haatik, ez ziren ariketaren erdigune eta ez zuten garrantzi edo protagonismorik hartzen; eta ez zuten soinean ikurrik eramaten (nahiz eta guztia asko erraz zezaketen, alegia).

Azkenik, azaldu euskararekin murgiltze prozesuan zeuden norbanakoei ekimenak parada ezin hobea eskaini ziela *ahobizi* edo *belarriprest* izateko (euskaltegiko ikasleak, euskara aspalditik alboratutako zutenak, etab.), ikasi zutena egiazko testuinguruan gauzatzeko aukera baitzuten, eta, gainera, gizartearen adostasunez eta segurtasun osoz (Illaro eta beste, 2018).

Ekimenaren hastapenez, azaldu ez zela gabeziatik irten eta hainbat faktoreri esker sortu zela. Gero eta jende gehiago zen/da kapaza euskaraz elekatzeko eta euskaraz ulertzeko (Palacios, 2017), baina trabatuta segitzen zuen/du oraindik kale-erabilerak hainbat urtetik hona, lehen azertu legez. Hori horrela izanik, une aparta zegoen EH mailan ariketa sozial handi bat zuzentzeko, hizkuntza ohiturak errotik aldatzeari begira. Orobat, euskalgintzaz eta euskararen normalizazioaz arduratzen direnek euskararen alde lan egiteko zuten nahia eta postura eta euskaltzaleek esperimendatzeko zuten gogoia pizgarri bihurtu ziren aurrera egiteko (Illaro eta beste, 2018).

Aitzin egin horretan, *Euskarak 365 egun* lan-bidea ekimenaren euskailua izan zen (Palacios, 2017); eta, horretaz gainera, azken urteotako Euskal Herriko euskararen aldeko ekimen, proiektuak eta lanak funts: Donostiako Egia auzoan *Egian euskaraz bizi nahi dugu*; Lasarte-Oriako *Baietz 40 egun euskaraz*; Lutxo Egiaren *Bi-lingual:transitoak* performancea<sup>5</sup>; Arabako Agurain herriko *GUK75, Agurainen 75 ordu euskaraz*; lan munduko EUSLE metodologia; Udaltop topaketak; TELP tailerrak; AEK-ko 'Eusliderrak' bezalako proposamenak; eta abar.

Ekimenaren oinarriak hartuta, Euskal Herriko instituzio eta eragile asko<sup>6</sup> izan ziren ekimenaren parte, eta toki bakoitzeko euskaltzale taldeak herri edo hiri bakoitzeko dinamikak abiarazi zituzten, elkarte, enpresa nahiz erakundeen bermearekin, esan bezala (Palacios, 2017). Herritarrentzat Euskaraldiaren antolaketa taldean izan zedin osatu zen, gizataldean jardunez eta jomuga partekatua izanda xedearekin eraginkorrago izatea zegoelako (Illaro eta beste, 2018), hain justu "testuinguru babestuak sortuz" (Mtz. de Lagos, 2018, 20 or.).

Eta, gerora, eraginkorra gertatu zen oso, beharbada horren izaera berritzaileagatik eta arduradunek horrekin ezer gutxi galduko zuteneko uste osoagatik. Hasiera-hasieratik abegi beroa egin

zitziaion ekimenari EH osoan (Illaro eta beste, 2018), euskal gizarteari lehenbizikoz 2017an aurkeztu baitzitziaion, eta egin bitartean eta amaitu ostean pertzepzio onak garaile atera ziren.

2020ko bigarren edizioari begira, 15 egunekoa izango dena kasu honetan, bi helbururekin bat egitea bilatuko da: Euskaraldian zehar emandako aurrerabide guztiek etorkizunean zinez irautea (Illaro eta beste, 2018) eta, entitateei gagozkiela, benetako neurriak har ditzatela, horiek suspertzea, zabaltzea eta etorkizunerako euskara-ildo mantentzea, jarrera eredugarriak abiapuntu (Mtz. de Lagos, 2018).

## **OHARRAK**

<sup>1</sup> Hizkuntza baten diagnosia egiteko, Fishmanek sortutako eskala erabil daiteke: *Graded Intergenerational Disruption Scale (GIDS)*. Horrek zortzi maila ditu eta larritasunaren arabera lerrokatuta daude; hizkuntza zenbat eta maila handiagoan kokatuta egon, gero eta larriagoa izango da bere egoera (Zarraga eta beste, 2010).

<sup>2</sup> *Lekukoak* hizkuntza irudikatzen du, eta hori daramanak euskararen sinboloa darama, ondare kolektiboa, alegia. Euskal Herritik barrena doa, kilometro bakoitzeko gizabanako batek ekarria, eta lekukoa euskara den neurrian hura ohoratzen da eta sinbolikoki nagusitzen (Del Valle, 1988). Lekukoak edizio bakoitzean mezu ezberdina gordetzen du. Egurrezkoa da, eta ikurrina txikia lotuta dauka goiburuan.

<sup>3</sup> Oro har geldiunerik gabeko lasterketa da, salbuespenez haraindi (omenaldiak, unean uneko ekitaldi ttipiak...). Mugimendua iraunkorra da, batetik, aurrera begira, hots, helmugarako bidean eta, bestetik, zirkulu-formakoan eta modu inguratzailean, fisikoki lurralde zehatza eskatzen dela erakutsiz (Del Valle, 1988).

<sup>4</sup> Zehazkiago, enpresak, gisa guztietako elkarteak (kulturakoak, gastronomikoak, sektorialak, kiroltakoak...), zerbitzuak, administrazio publikoa, eta abar (Mtz. de Lagos, 2018).

<sup>5</sup> 2015. urtean, Lutxo Egia santardertar soziologoak hilabete batez gaztelaniaz hitz egiteari uko egin zion euskara erabiltzeko asmotan, eta ingelesa soilki nahitaezkoa bazen (Astiz, 2015).

<sup>6</sup> Sustatzaileak: Berria taldea; AEK; Artez Euskara Zerbitzua; EHU; Elkar Fundazioa; Bai Euskarari Elkartea; Elhuyar; Kontseilua; UEU; Uema; Tokikom; Argia; Ikastolen Elkartea; Irrien Lagunak; Herri Elkargoa; Eusko Ikaskuntza; Emun; Euskaltzaindia; Euskaltzaleen Topagunea; Eudel; Euskararen Erakunde Publikoa; Soziolinguistika Klusterra; Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Eusko Jaurilaritza-Hizkuntza Politikorako Sailburuordetza (Palacios, 2017).

Koordinazio mahai orokorra: Euskaltzaleen Topagunea; Eusko Jaurilaritza- Hizkuntza Politikorako Sailburuordetza; Euskal Elkargoa; Euskararen Erakunde Publikoa; Nafarroako Gobernuo Euskarabidea (Euskaltzaleen Topagunea, 2019).

### **3. Metodologia**

Gure lanean ikerketa kuantitatiboa eraman da aurrera, lehendabizikoz, eta ikerketa kualitatiboa ondoren.

Ikerketa kuantitatiboaren bidez, bildu eta analizatu ahal izan dira aldagaien inguruko datu kuantitatiboak (Pita eta Pértegas, 2002), modu estrukturatu batean (Castro, 2002). Ikerkuntza mota horrek informazio neurgarria jaso du, eta gerora hori zenbakietan bihurtu ahal izan da, besteak beste. Gurean, metodologia kuantitatiboa bildu duen tresna inkesta izan dugu, Euskaraldian parte hartu zuten hainbat pertsonari eta Euskaraldiaren aldeko plataforma bati pasa zitzaaien lineako galdetegi baten bidez (*Galdetegia osorik ikusteko, ikus 1. eranskina*).

Ikerketa kualitatiboaren bitartez, errealitatea berezko testuinguruan aztertu ahal izan dugu (Rodríguez eta beste, 1996), eta izaera esploratzailea, ikertzailea eta induktiboa gidari izan dira (Krause, 1995). Errealitatea gertatu den moduan ulertzen lagundu digu (Rodríguez eta beste, 1996). Gurean, metodologia kualitatiboak tokia eduki du Euskaltzaleen Topaguneko kidearekin edukitako hizketaldiarekin, aipaturiko inkestetatik ateratako datuak harekin egiaztatuz eta aztertuz (*Galdetegia osorik ikusteko, ikus 2. eranskina*).

#### **3.1. Ikerketa kuantitatiboa**

##### **3.1.1. Inkestaren hezurdura**

Inkestari dagokiolarik, honako ikerketa gaia eduki zuen: Euskaraldia ariketa sozialean parte hartu zuen jendearen errealitatea, iritzia eta konpromisoa ezagutzeko, bestelako inguruabarrekin batera. Hori tankera ezberdineko galderek osatzen zuten, betiere Euskaraldiari bide eginez. Inkestaren izenak, hartan, gaiari berari egiten zion erreferentzia: *Euskaraldiaren inguruko inkesta*. Galdetegiari erantzuteko epea otsailaren 1etik apirilaren 14ra luzatu zen.

Edukiari begira, galdetutako gizarte-aldagaiak bi izan ziren: sexua eta adina (azken hori adin-tarteetan banatuta). Bestalde, inkestatuei beren bizitokia eta bizigune zehatza, izan hiriburua edo izan herria, galdetu zitzaien. Azkenik, gainerako beste galdera trinko batzuk sortu ziren, 14, hain zuzen ere.

14 galdera horien artean, 13 nahitaezkoak ziren erantzuteko eta bakar bat hautazkoa. Garatzeko hiru galdera zeuden, hautazkoa ere garatzekoa izaki. Besteei dagokienez, eskuarki, galderari erantzuna emango zioten hiru, lau eta bost aukera egon ohi ziren itaunketa bakoitzeko, galderaren arabera aldatuz bazihoan ere, eta inkestatuek horietatik bat hautatzeko beharra zuten (nahiz eta baten batean emandako aukerez gainera idazteko parada egon).

### **3.1.2. Partaideak**

Inkesta hori ezagun, lagun edo ahaide ditudan eta Euskaraldian parte hartu duten neska zein mutilei bidali nien. Era berean, Euskaraldia Donostia plataformari igorri nion hark inkesta Donostiako auzoetako euskara batzordeei helarazteko asmoz.

Aurreneko multzoari begira, estimatzen zaila bada ere, galdetegia 50 bat pertsonari pasa zitzaiela aipa daiteke, hor nonbait. Bigarren multzoari dagokionez, ordea, ezinezkoa dugu zenbatek jaso egin zuten jakitea. Bestalde, denetara zenbatek jaso eta egin duten zehazterik badugu: 53 pertsonak.

Galdetegia jendeari bidaltzeko, galdetegiaren esteka, alegia, sare sozialez baliatu gara. Ezagun, lagun eta ahaideentzat *WhatsAppeko* txat indibidualak erabili ditugu, horrek daukan erraztasuna eta bizitasuna aprobetxatuz, eta posta elektronikoko arrunta. Bestalde, Euskaraldia Donostiarekin harremanetan jartzeko *Facebookeko* mezularia izan dugu lagun.

Nahitaezkoak ziren hamahiru galdera zeuden eta, hala, guzti-guztiak erantzun behar izan zieten horiei, salbuespenik gabe. Garatzekoetan, batzuek labur azaldu zuten beren irudikoa eta beste batzuek luze eta zabal. Bestalde, hautazko galdera bat zegoen, eta horri, 53 pertsonen artean, 30k erantzun zioten.

### **3.1.3. Datuen analisisia**

Inkestak bidali ziren, eta zenbait datu jaso ziren ostera. Eta datu horiek guztiak bi adierazpide grafikotan hartu eta islatu ziren, galdera-tipologiaren arabera: hala nola, sektore-diagrama kualitatiboaren bitartez eta barra-diagrama kuantitatiboaren bitartez, oro har. Egondako galdera irekietarako, aldiz, datu- eta informazio-bilketa soila aurrera eramanezen, bere osteko azterketa zuzena betetzeko asmoarekin.

Sektore-diagramen bidez, datuen banaketa adierazia izaki, datuak irudikatzeko elementuetan arreta jarri zen, hots, grafikoaren *espezifikatzaileetan*, eta emandako ezberdintasunak eta banaketak eskuratu ahal izan ziren (Arteaga, 2009). Bestalde, barra-diagramen bidez, gradualtasun bat erakusten zuten galderekin erabili zen, eta barraren altueraren eta frekuentzia baten arteko proportzionaltasunaz atera zena aztertu egin zen (Arteaga, 2009). Azkenik, irekiak ziren galderetan inkestatuek erantzundakoa bildu, eta horren azterketa eta sailkapen doia bete zen gerora.

### **3.2. Ikerketa kualitatiboa**

#### **3.2.1. Tresna eta bilakaera**

Hasieran aipatu bezalaxe, metodologia kualitatiboa garatzeko tresna elkarrizketa izan genuen honetan. Hartan, solasaldia Euskaltzaleen Topaguneko kide batekin bete genuen, aurrerantzean K1 bezala izenpetuko duguna, hain zuzen. Inkestetako datuekin ondorioztatu zena haren iruzkinekin eta jakintzekin erkatu eta baloratu zen, galdera-sorta bat gidari; finean, Euskaraldiaren ibilbidean jantzita egonda, ariketaz zuhurtasunez eta egokitasunez hitz egin zezakeen. Bestalde, adierazi hizketaldiak Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea eduki zuela egoitza.

Solasaldiaren edukiarri dagokionez, aipatu beharra dago hori ikerketa kuantitatiboko inkestetatik ateratako datuekin eta zenbakizko informazioarekin osatu zela eta, hala, Euskaraldia gaia barne hartu zuela. Hori bera 11 galdera nagusik osatzen zuten eta bigarren mailako 1ek.

## **4. Emaitzak**


Atal honetan, buruturiko ikerketa kuantitatibotik zein ikerketa kualitatibotik ateratako emaitzak jaso eta aztertuko ditugu. Eta emaitzak jasotzeak, hala, aurretiko ikerkuntza prozesua sendoa izan den edo ez aditzera eman digu, eta ikertutakoaren inguruan ondorioak atera ahal izan ditugu. Esan gabe doa emaitzak gure laginera egokituta daudela eta ez, aldiz, inolako beste txostenetara edo lanetara.

### **4.1. Inkestaren inguruko emaitzak**

#### **4.1.1. Egoera**

Itaunen artean, inkestatuoi galdetu zitzaien Euskaraldia jeneralean zer iruditu zitzaien, eta jasotako emaitzak biziki positiboak izan ziren. Finean, 1etik 5erako puntuazio eskalan, 1ak asperraldia eta gogo eza irudikatuz eta 5ak motibazioa eta kitzikapena, emaitzak honakoak izan ziren: % 20,8k eta % 52,8k 5 eta 4 puntu esleitu zizkion ekimenari, hurrenez hurren; eta, gainontzean, % 22, 6k 3 eta % 3,8k 2. Ondoriora, behagarria da inkestatuak, oro har, Euskaraldian zehar euskaraz aritzen eroso eta gustura ibili zirela eta ez, inolaz ere, etsita .


### 1. grafikoa: Euskaraldiaren inguruko iritzia



Era berean, inkestatuoi honakoa baloratzeko eskatu zitzaizen: beren parte hartzea eta inplikazioa prozesu osoan zehar. Horretan, inkestatuoen % 17k adierazi zuen bere parte hartzea erabatekoa izan zela rolaren eskakizunak bete-betean beterik; eta % 58,5ek kasik erabatekoa. Bestalde, % 22,6rentzat parte hartzea hala-moduzkoa izan zen eta % 1,9rentzat, hots, pertsona bakar batentzat traketsa, agidanez.

Aurrekoa aztertuta, gauza azpimarragarria da gehiengoak 11 egun luzez euskaraz hitz egiteko gogoia eta gaitasuna izan duela eta, batik bat, konpromisoa.

### 2. grafikoa: Euskaraldian izandako parte hartzea eta inplikazioa




Bestalde, Euskaraldiaren arduradunek aditzera eman zuten 2020. urteko udazkenean bigarren edizioa egingo dela ekimenak bi urterako zikloa izango duelarik. Hori horrela izanik, gure laginari galdetu genion bigarren edizio horretan berriz ere parte hartzeko gogorik izango zuen edo ez. Eta erantzunak, hain zuzen, Euskaraldiaren aldekoak izan ziren guztiz. Izan ere, % 81,1ek gustura asko

parte hartuko zuela adierazi zuen. Gainerakoan, % 13,2k azaldu zuen baietz baina ez lehendabizikoan bezainbeste gogotsu; eta beste hiru pertsonak ezaxola edo gogo eza erakutsi zuten.

Horrenbestez, ozen aipatu beharra dago Euskaraldia arrakastatsua izan dela parte hartzaileak orokorrean gogobetetzeko eta, halaberki, harrera ona izan duela.

### 3. grafikoa: Euskaraldiko bigarren edizioan parte hartzeko nahia




#### 4.1.2. Errealitatea


Aurreko egoerak, zalantza izpirik gabe, Euskaraldia goratzen du, ekimena hein handian arrakastatsu bihurtu dela erakusten digu eta jendea aho-zapore onarekin uztea lortu duela adierazten digu, euskararen mesedetan. Teorian, asmatu egin da. Praktikan, ostera, errealitatea bestelakoa izan daitekeela hauteman egin behar izan dugu.

Hasteko eta bat, guztia ulergarri izan dadin, azaldu beharra dago parte hartu dutenen artean % 58,5 euskaraz bizi dela eta % 41,5 gaztelaniaz. Berebat, gurean belarriprest bakar baten iritzia izan dugula. Horrek, beharbada, errealitatea desdoitzen digu, jakin badakigulako EAEn gaitasun erlatiboa eta hiztun tipologia orokorra zein den. Egoera horren aurrean, bi alternatiba daude: batetik, esan bezala, gure lagina EAeko errealitate soziolinguistikoaren egiazko isla ez izatea; edo, bestetik, Euskaraldia batik bat euskaraz bizi ohi direnentzat edo bizitzeko gaitasun zabala dutenentzat zuzenduta egotea, besterik ez. Eta bata zein bestea lanerako baldintzatzaileak dira oso.

### 4. grafikoa: Inkestatuek beren egunerokoan erabiltzen duten hizkuntza




5. grafikoa: Inkestatuek hartu duten rola



Bigarrenik, Euskaraldiak euskararen agerpena areagotzeko izan duen balioa kolokan jarri behar dugu, nolabait.

Egia da inkestatuen % 75,5ek adierazi zigula Euskaraldian zehar berealdiko partaidetza izan zuela. Halaber, inkestatuen inguruko jendeak egitasmoan izandako parte hartzeaz galdetzerakoan, % 66,1ek hauxe erantzun zigun: guztizko edo ia erabateko konpromisoa egon zela. Aurrekoa hala izanda, ariketak beren bizitzan euskararen agerpena areagotzeko balio izan duen edo ez galdetutakoan, kanpoko talaiatik emaitza positiboak espero genitzake. Ordea, ez dira euskararentzat emaitza finik jaso. Izan ere, pertsona bakar batek besterik ez du azaldu hizkuntza-ohiturak pertsona askorekin aldatzea lortu duenik. Oro har, inkestatuen artean joera orokorra da, salbuespen txikiak tarteko, hizkuntza nagusia erdara izaten jarraitzea, % 41,5ek hala berretsi digun legez.

6. grafikoa: Euskaraldiak beren bizitzan euskara areagotzeko balio izan duenentz




Hizkuntza-ohiturak aldatzea Euskaraldiko muina izaki, haratago joan ginen eta hizkuntza-ohiturak zenbat pertsonarekin aldatu ote zituzten itaundu genien. Finean, ariketa egin ostean horrek izandako



oihartzun zehatza ikertu nahi genuen. Ostera ere, erantzunak askotarikoak izan ziren baina ez euskararentzat arras eraginkorrak. 25 pertsonak, hots, % 47,2k hizkuntza-ohiturak aldatu egin ditu, hala da; baina soilik 1 eta 3 pertsonaren artean (eta horretan aztertu beharko genuke zenbatek zinez hiru, bi edo bakar bat eta betiko edo aldi baterako baino ez). Bestalde, pertsona bakar batek aldatu egin ditu pertsona nahikorekin, 10ekin baino gehiagorekin, antza; eta, aldiz, %15ek ez du aldaketarik sumatu Euskaraldia dagoeneko ahituta.

7. grafikoa: Inkestatuek zenbat pertsonarekin aldatu dituzten hizkuntza-ohiturak



Azken aipu gisara, arestikoa puska batean osatze aldera, Euskaraldia euskararentzat erabilgarria gertatu den edo gertatuko den galdegin zitzaien inkestatuei ere bai. Zenbaiten irudikoz, ekimenak balio izan du *zenbaitengan kontzientzia pizteko, euskaraz mintzatzeko ohiturarik ez duten batzuek aldaketa bati hasiera emateko* eta askok, hain justu, *jarrerak aldatzeko*. Hori ukatu gabe, ezin baita, iritzi ugariena eta pertzepzio orokorra azaldutakoaren kontrakoa da, eta 4.1.2. atalean zehar aldeztu eta azaldu duguna berrestera datorrena da. Hitzez hitz, Euskaraldiaren balizko eraginkortasunez zera esan dute inkestatuek, besteak beste:

- **(1. inkestatua) 19-29 urte. Araba:** *Nire kasuan, Euskaraldiaren egunetan nahiko nabaritu nuen euskararen erabilera (lanean batez ere). Baina denbora pasa ahala, jendearen ekimena gutxitzen doa.*
- **(9. inkestatua) 19-29 urte. Araba:** *Nik uste dut baietz, baina benetan kontzientziarioa dutenengan eta euskaraz bizi nahi dutenengan. Hori sentitu ezean, erdarak jarraituko du lelopean, "guztiak berdin jarraitu behar duelako Euskaraldia jada atzean utzita".*
- **(10. inkestatua) 19-29 urte. Gipuzkoa:** *Nire ustetan ezer gutxirako balio du ekimen honek. Egia da egun horietan euskara erabiltzen dela baina ez da egunerokotasuna bilakatzen; beraz, erdaldunek erdarara jotzen dute segituan eta benetako euskaldunak dira euskararen erabileraren zaindaria.*
- **(11. inkestatua) 19-29 urte. Araba:** *Euskararentzat erabilgarria izan dela pentsatu nahi dut, baina gehienek hitzontzikerian jarraitu dutela uste dut.*

- **(50. inkestatua) 40-49 urte. Gipuzkoa:** *Hizkuntza batean ala bestean bizitzea da norbanakoaren erabakia. Erabaki hori lotura emozional bati dagokio, hau da, sinistu ala ez sinistu; sentitu ala ez sentitu; eta euskara ama hizkuntza ez dutenei mintzatzeak egunerokoan ahalegina eskatzen die. Ez dut uste Euskaraldiak antolatzen den datatik aparte eragina duenik erdaldunengan orokorrean.*

#### 4.2. Euskaltzaleen Topaguneko kidearen solasaldiaren emaitzak

Arestian ikusi bezala, inkestatuen % 20,8k eta % 52,8k 5 eta 4 puntu eman zizkion ekimenari Euskaraldia zer iruditu zitzaien galdetzerakoan, hurrenez hurren. Gainontzean, % 22,6k eta % 3,8k 3 eta 2 puntu. Egoera hori hausnartuta, jakina, K1i galdetu zitzaion jendea horren gustura egonik zer dela-eta ez den aritzen euskaraz urte osoan zehar. K1en esanetan, hala, garrantzizkoa da ikertzea Euskaraldia baino lehenago aritzen zirenentz erdaraz edo praktikari eutsi dioten. Hala ere, zintzotasunez aipatzen digu askok Euskaraldiaren giroa eta autentifikazioa amaituta eta txaparik jantzi gabe egonda ulertu dutela euskaraz jardutea 12. egunean amaitzen zela. Finean, 11 egun horietan txapak informazio handia ematen zigun, guztiek euskaraz ulertzen zutela behinik behin, alegia, eta horrek erosotasunez eta estres linguistikorik gabe mintzatzeko aukera ematen zuen. Horren aurrean, delako estresa, ziurgabetasuna eta ezezagunari erdaraz hitz egiteari dagokion arau sozial hori berriz agertzen dira. Bien bitartean, normalizazioa lortu arte edizioak sortzen eta ospatzen segitu beharko dugula dio.

Bestalde, aztertu dugu inkestatuen % 17k ziola bere partaidetza bete-betekoa izan zela Euskaraldian zehar rola zekarrena betez eta % 58,5ek azaldu zuela ia-ia erabatekoa. Hau da, 11 egun luzez euskaraz mintzatzeko indarra eta konpromisoa eduki zutela; “dena eman zuela” gehiengoak. Egoera horri jaramon eginez eta bestelako azterketaz, ondorioztatu ahal izan genuen euskararen aldeko ekimen, ariketa edo programei dagokien esku-hartzea handiagotuz doala denboraren poderioan: Korrika, mintzapraktika-programa, Euskaraldia... Hori hala izanda, K1i egoeraren inguruan galdetu genion, ameskeria ote den jakiteko asmoz. Haren esanetan, ez da ameskeria. Duela 20 urte zegoen euskararen garapenaren kontrako jendea gaur-gaurkoz biziki txikiagoa da, eta euskararen normalizazioaren aldeko neurriak are gehiago dira orain behiala baino. Eta hori gogoz azpimarratzen du, atxikimenduak duen garrantzia dela-eta eta euskararen aldeko jarrera izateak duen axolagatik, euskararen alde aurrerapausorik ematerako orduan. Bestalde, K1ek zehazten digu hori horrela izanik ere ez ginatekeela inolaz ere erlaxatu behar, hizkuntza hau galdu daitekeelako aldaketa nimiño batek sortarazita ere. Aipatzen du, euskarak hala behar duenez gero, kontzientzia linguistikoa hedatzea dugula, jende askok uste baitu jakintzak berak erabilera automatikoa ekarriko duela. Eta ez. Hortaz,

aukerako ekosistema bat sortu behar dela, bertan ulermen unibertsala egon bedi, kontsulta linguistikoa, hizkuntzari onartutako erabilgarritasuna eta asetasuna eta ingurunearen aldeotasuna, atxikimendua, Euskaraldiak berak horretarako lan egin izan duen moduan.

Hirugarrenik, 2020 urtean egingo den Euskaraldiari erreparatu zitzaion. Hizpide esanguratsua zen, inkestatuen % 81,1ek irmotasunez gustura asko partaide izango zela berriro esan zuelako baina, gerora, askok diotelako *euskaraz bizi zirenentzat* edo *euskararekiko kontzientzia piztuta zutenentzat soilik izango dela arrakastatsua, erdaraz bizi direnentzat ekimena ahituz* doalako. K1ekin argitu nahian, hain zuzen, azaldu zigun ehuneko hori biziki pozgarria dela eta askok botatako iritzi edo iruzkin horiek, zilegiak eta errealak izan badaitezke ere, antzemateko aukerarik ez dutela izan oraindik. Metafora baten bidez, edizio bakar bat soilik beteta inkestatu askok aipatzen dutena gertatu ote den epaitzea ezinezkoa dela eta edizio gutxi batzuk igaro ostean ondorio horiek atera ahalko ditugula.

Gainera, azpimarratzen du euskaraz bizi garenontzat Euskaraldiaren bitartez ekarpena egiten dugula eta beste euskaradunak ezagutzeko aukera ematen zaigula baina, era berean, lagungarria gerta dakioke erdaraz bizi denari. Izan ere, praktika mugatuta edukita, ariketarekin eroso senti daiteke euskaraz egiteko eta giro konplizea eratzen delako bere inguruan.

Laugarrenik, K1i inkestetatik ateratako hainbat datu aditzera eman zitzaizkion: inkestatuen % 58,5 euskaraz bizi dela eta % 41,5 erdaraz, eta inkesta jaso dutenen artean (izan ezagunak izan Euskaraldia Donostiako kideak) belarriprest bakarra aurkitu dugula. Arreta gai berezitzat jo genuen hori, emaitzetan aztertu bezala, gure lagina EAEko errealitate soziolinguistikoaren isla ote den, batetik, edota Euskaraldia euskaraz bizi ohi direnentzat bakarrik bideratuta dagoen, bestetik, ez baikenekien. K1i esker, argitu genuen laginak ez duela islatzen Euskadiko batez bestekoa, lagina benetakoa izanagatik ere, biziki euskalduna delako.

Nolanahi ere, garbi eta aratz azaldu zuen ez duela uste ariketa soilik euskal hiztunentzat zuzendua izan denik, ariketak izaera integratzailea zuelako eta ahobizi portaerarekin batera bezainbeste zilegi diren belarriprestak egon zirelako halaber, beste usadio bat dutenak, besterik gabe; esan nahi baita konprenitzea bai baina erabiltzea ez. Baina egia da horren harira autokritiko agertu zela, beharbada ahobizi rolean indar handiagoa jarri zutela onartuz; eta proposamena eta hartu beharreko rola bezainbeste ondo ez ulertaraztea ederretsiz, elebiko solasaldiak mantentzeak dakarren zailtasunari begira. 2. edizioari begira dio lana izango dela, orain, jokaera hobeto azaltzea, jendeak ikurra harro eraman dezan eta belarriprest aktibo bihur dadin.

Ondoren, K1ekin aztertzea erabaki genuen hizkuntza-ohiturei dagokion gaia, ariketaren muina, hain justu. Duela gutxi ikusi dugu inkestatuen artean gehiengo handiak konpromiso eta ahalegin osoz parte hartu zuela Euskaraldian baina epaitu genuen halaber parte hartu izanagatik ere emaitzak ez zirela

positiboak izan gerora. Baikorrak esan nahi baita hizkuntza-ohitura aldakuntzari begira, inkestatu guztien artean pertsona bakar batek askorekin (10ekin baino gehiago) aldatu zituelako eta % 47,2k bat, bi edo hiru pertsonarekin baino ez. Hitz batez, porrotatzat jo genuen. K1ek, ordea, jakintasun osoz azaldu zigun hizkuntza-ohiturak bat, bi edo hiru pertsonarekin aldatzea oso positiboa dela; eta hamarrekin ikaragarria. Izan ere, zehaztu zigun testuinguru mesedegarri batean bizi arren, eremu guztietan euskaraz jardutea ez dela batere erraza –lagunartean, lanean, etxean...– eta hori Euskadiko eremu soziolinguistiko gehienetan gertatzen dela, hori ohiturak aldatzeko baldintzatzailea izanik. Horren harira, Arrate Illarorekin, hots, 2018ko Euskararaldiko koordinatzailearekin, gaiaz izandako solasaldi motz batean, gauza bera aipatzen zigun: bat, bi edo hiru izatea, berdin duela; berri ona dela aldaketa.

K1ekin itzulita, berriz ere, aipatu zigun ekimen orok balio duela epe luzera, Korrikak, Euskaraldiak edo edozeinek, ondorio praktiko bat dutelako eta eragin handia; kasu zehatz honetan, indarra jokaeretan. Honetan, lehen edizioa izateko, asmatu egin dutela dio, 220.000 ahobizi eta belarriprest egon dira-eta; baina, haatik, hiztun guztietara heldu behar direla onartzen du.

Amaitzeko, gure inkestatuei azaltzeko eskatutakoari buruz K1ek iruzkinak egin zitzaizkion genion berebat. Inkestatu askok Euskaraldiak balio handia izan dezakeela azaldu zuten, baina beste askok bat egiten zuten pertzepzio berberarekin: 12. egunean euskarak uxatuko dituela milaka mihi euskara zinez besarkatu ezean edo borroka honekin bat egin ezik. Egoera horren harira, K1ek xehatu zigun baieztapen horien artean arrazoia tarteko egon badaiteke ere, testuinguru oztopatzailean bizi denarentzat euskara besarkatu eta alde borrokatzea ez dela hain erraza, guztiak eginahala eskatzen duelako, determinazio bat, kontzientzia linguistikoa izatea eta egoeraren analisisa. Finean, testuinguru mesedegarrian bizi den euskaldunarentzat erabat sinplea ez delako ere hori.

Azken aipu gisara, esan Euskaraldiaren etorkizunaz, hots, hurrengo edizioez preseski galdetu geniola K1i galdekizun biren bitartez. Batetik, noiz arte egon beharko ginatekeen Euskaraldiak egiten. Horren ildora, K1ek adierazi zigun ez dagoela jakiterik, gurea hizkuntza gutxitua delako (globalizazioan, XXI. mendean eta frantsesaren eta gaztelaniaren artean atzitura) eta Euskaraldia ez balego beste ekimen bat egongo litzatekelako. Halaz ere, 2. edizioaz aurreratu zigun 11 egun izan beharrean 15 izango zirela, jakin bagenekien ere, eta 2019-20rako ariketa sozial masiboa bi urtean behin egitea proposatuko zutela.

Bestetik, esparru publikoaren inplikazio eskasaz galdetu genion K1i, inkestatuek hala salatuta, eta hark, apaltasun osoz, onartu egin zigun eremu publikoak gogoeta egin behar duela. Izan ere, Euskaraldia esparru publikora bideratuta zegoen. Baina, haren esanetan, 1. edizioa norbanakoen edizioa izan bada ere, 2. edizioan ez diete bakarrik eskatuko norbanakoen artean rola hartzeko eta betetzeko. Honetan, erakunde orori dei egingo zaio beren kideek parte hartzera bultzatzeaz gainera, hori mantenduz, haiek entitate modura ere esku-har dezaten, babes-neurri ugariarekin batera.

## **5. Ondorioak**

Lanaren helburu nagusia genuen euskararen egoera soziolinguistikora hurbilpen bat egitea betiere euskararen aldeko ekimenek duten durundia neurtuz; kasu honetan, Euskaraldia arreta gai hartuta. Gerora, helburuaren jarraipena genuen marko teorikotik zein alde enpirikotik ondorio batzuk ateratzea, eta hala egin dugu, jarraian lekukoa izanik.

1) Euskararen egoera ikuskera dikotomiko batetik aztertu beharra dago egun, 3/1979 Legea ezarri zenetik gaurdaino hartu duen joeragatik. Izan ere, maila geografikoan, demografikoan eta funtzionalean aurrerapauso handiak eman diren bitartean, asko izan baitira, eman beharreko beste asko ez dira eman oraindino. Eta beharrezkoak ziren.

Behagarri eta deigarri ditugun aurrerabideak hauexek dira: irakaskuntza euskaraz zabaltzea; komunikabideak euskaraz egotea eta sortzea; euskarazko eredu batua egituratzea; euskara hizkuntza ofizial bilakatu izana; euskararen erabilera sozialaren aldeko laguntzak izatea; euskaraz produzitzen hastea (musika, liburugintza, elikadura-produktuak...); maila sozialean izen handiagoa hartzea; eta abar. Haatik, euskara osotasunean garatzeko traba bihurtu direnak ere badira: arestian aipaturiko ofizialtasuna erabatekoa ez izatea EAE osoan; mintzairaren sozializaziorik ez lortzea, hots, jakin bai baina ez erabiltzea; duela urte asko bideratutako hizkuntza plangintzaren xedea gazteak izatea eta horiek erabat euskalduntzea ez lortzea; hiztun euskaradunak euskaraz egiteko eskubidea zanpatuta ikustea; euskarak funtzio folklorista, sinbolikoa eta metaforikoa izatea funtzio praktikoa baino; eta abar.

Esan daiteke, orokorrean, euskarak, diglosiak joa dagoen paradan, ezin izan dituela ondorio diren galzoriak zeharo uxatu eta, ondorioz, herri euskalduna oraingoz ez dela jadetsi.

2) Izan ere, egiaztatu ahal izan dugu euskarak auzokide dituela frantsesa eta gaztelania eta zinez hizkuntza-kide deserosoak direla euskararen garapenerako. Esan nahi baita euskara hizkuntza nagusiengandik menpeko egoeran bizitzera igaro dela aspaldi-aspalditik hona.

3) Baina egia da, halaber, faktore horrek ekarri duela milaka herritar, erakunde eta bestelakoak garaiz iratzartzea eta euskararen alde lan egitea. Gauza jakina da Euskadiko Autonomia Estatutuaren gerizpean egotea – halabeharrez baietz–egundoko bermea izan dela euskara biziberritzeko eta haren normalizazio-prozesuan aurrera egiteko. Baina, alafede, onartu beharra dago hiztunak aktibatzeke egindako ekimen, egitasmo, programa eta eskarmentuek (Euskaraldiak, Korrikak, Kuadrillategik, mintzapraktika-programek...) zer esan handia dutela euskararentzat, lehen begi-kolpean ezetz iruditu arren. Izan ere, askorengan muda linguistikoa eragiten dituzte eta, nolabait, autoestimu linguistikoa indartu testuinguru oztopatzaileko herritarrengan edo ez hain oztopatzaileko horiengan ere bai. EAEko leku askotan dauden erabilera indize baxuak handiagotzeko eta ezagutzaren eta erabileraren arteko zuloak estaltzeko sendabelar bihur daitezke, hein batean.

4) Kontua dator, orain, ekimen horiek nola kudeatzen diren, nola osatzen diren eta nola bideratzen diren arrakastatsu bilakatzeko eta daukaten helburua erdiesteko: erdal hiztunen hizkuntza-ohiturak masiboki aldatzea, alegia.

Gurera etorrira, zehetasunez aztertu dugu Euskaraldia “jaioberria” dela eta eduki duen eragin osoa neurtzerik ez dugula oraindino, edizio nahiko obratu ez baitira; baina, hala ere, etorkizunari begira non hobetu ondoriozta dezakegu apaltasun osoz. Esparru publikoak, hots, gizarte eragileek dute hizkuntza politikak egokitu eta bideratzeko aukera, erabilera dentsitatea handitzeko asmoz, eta Euskaraldia bezalako ekimenetan huts egiteak kalte handia dakarkio euskarari. Hori hobetu eta berraztertu beharko dute sakon, neurriak hartuta bermatu dezaten nahi duenak euskaraz egingo duela. Bestalde, entitate pribatuek, mota guztietakoek, buru-belarri jardun beharko dute ariketan zehar, ezaxolik gabe, entitate bakoitzeko norbanakoak ez ezik haiek ere entitate gisara egitasmoan inplika daitezten eta euskararekin konprometitu daitezten. Azken-aurreko gaiak, belarriprest rola hedatzen eta zabaltzen asmatzea eta herritarrak aktibatzen jakitea, aditzera emanda hori ahobizi bezain baliagarria izan daitekeela euskararentzat –edo gehiago- eta rolak ez duela gutxiagotasun-konplexurik sortu behar, erosotasuna baizik. Azkenik, 12. eguna amaitzen denean, 2. edizioari begira 15. egunean, alegia, Euskaraldiaren txinparta iraunaraztea egun horietan zehar hiztun aktibo izateko hitzeman dutenen artean, azken hori biziki zaila den arren arreta mediatikoa dagoeneko ahituz gero.

5) Azkenik, lana osatu ahala zenbait errealitate aurkitu ahal izan ditugu irakurketaz eta solasaldiaz baliatuta, mota askotarikoak, lanaren beraren indikatzaille esanguratsu bihurtu direnak ere bai.

Hizkuntza-ohiturak bat, bi edo hiru pertsonarekin aldatzea aurrerapauso handia da euskararentzat, sarritan aldaketa dituzten horiek testuinguru oztopatzailean bizi direlako edo beren ingurua erdal elebidunez, elebidun hartzaileez edo elebidun pasiboz josita dagoelako (Euskaraldian parte hartzen ez dutenak, jakina).

Aurrekoaren harira, erronka sozial eta nazional honi, hau da, euskarari atxikimendua eta laketasuna adieraztea kasu ugarian hain erraza ez da. Azken batean, inguru erdaldunean bizi denarentzat 11 egunez ahobizi eta belarriprest aritzea hain sinplea ez da, azterketan zehar aipatu dugun moduan, horrek askori esfortzu handia, zehaztapena, gogoeta linguistikoa eta egoeraren ikerketa eskatzen baitie.

Bestalde, emakumeek gizonak baino gehiago hartu dutela parte Euskaraldian, beharbada esku-hartzeko aukera argiagoa ikusi dutelako, euskara laguntzeko abagune eraginkorragoa eta Euskaraldia erreminta baliagarri gisa. Euskaraldiko arduradunen arabera, errealitatea orekatzen saiatu beharko dira.

Halaber, aurrekoan zeharka aipatuta, euskarak gero eta aldekotasun handia eduki baduela Euskadin eta aspalditik gaurdaino euskararen aldeko jarrerak, oro har, gero eta gehiago direla. Giro

sozial horri esker, euskararen alde sortutako ekimenetan gero eta euskal herritar gehiago daude, eta horren lekuko ditugu: 21. Korrika, 2019 urtekoa, ordura arte jendetsuena bilakatu izana edota Euskaraldiak, bere lehendabiziko edizioan, 220.000 belarriprest eta ahobizi batu izana. Ospatzeko da hori, euskararen gaineko kontrakotasuna egotea arazo zeharo larria litzatekelako biziraupenaz hitz egiterako orduan.

Orobat, eta nahiz eta aurrerabideak askotarikoak, zilegiak eta arras baliagarriak izan, ziurrenik euskararen biziraupena eta zinezko normaltasuna lortzerik ez dagoela estatu propio bat lortu arte, diglosia gorrian egonda, soziokulturalki eta soziolinguistikoki autoerregulatzeko ahalmena behar duelako euskarak.

Berebat, milaka faktoreri esker, euskara agian gozoago bizi dela behiala baino baina, halarik ere, egoera kritikoan. Euskararen hizkuntza-komunitatean euskara da zutabea; egun badago, baina egoera gutxituan eta betiere desagertzeko zorian. Hizkuntzaren arazoa ez denez, erreminta hutsak baino ez dira-eta, hiztunek dute gerora hura erabiltzeko betebeharra, inolaz ere pentsatuta guztia egina dagoela. Ezta 100 urteren buruan ere.

Azkenik, zehaztu aztertutako lagina ez dela Euskadiren errealitate soziolinguistikoaren isla, gurea biziki euskalduna izan delako (gipuzkoar inkestatuen kopurua handia izan delako eta oso gaztea) eta proportzioan belarriprest nahikorik hartu ez duelako. Alabaina, soziolinguistikako eta Euskaraldiko oinarritzko gaietarako erakusleiho gertatu da.

## 6. Bibliografia

3/1979 Arau Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriarentzako Autonomi Estatutua.

Abdelhadi, M. (2016). *Arabic Language Maintenance among the Arabic-speaking community in the regional Queensland city of Toowoomba, Australia* (Doktorego tesia). University of Southern Queensland, Australia. Eskuragarri in:

[https://eprints.usq.edu.au/32727/10/Abdelhadi\\_2016\\_Whole.pdf](https://eprints.usq.edu.au/32727/10/Abdelhadi_2016_Whole.pdf)

Amorrortu, E. eta beste, (2016), *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, Bilbo, Espainia: Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak.

Arteaga, P. (2009). *Análisis de gráficos estadísticos elaborados en un proyecto de análisis de datos* (maisutza tesia). Universidad de Granada, Granada. Eskuragarri in:

<http://www.ugr.es/~batanero/pages/ARTICULOS/trabajomasterPedro.pdf>

Astiz, I. (2015eko ekainaren 11n). "Hizkuntza hegemonikoa ahaztuta biziko naiz hilabetez". *Berria*. Eskuragarri in:

Castro, M. A. eta Castro L. A. (2002). Hacia una correcta comprensión de la metodología cuantitativa. *Política y Sociedad*, 39 (2), 481-496 or. Eskuragarri in:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=304079>

Del Valle, T., (1988), *Korrika: rituales de la lengua en el espacio*, Bartzelona, Katalunia: Anthropos.

Egizabal eta beste (2004). Kuadrillategi egitasmoa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*. 53, 103-111 or. Eskuragarri in: <http://www.soziolinguistika.eus/es/node/1782>

Euskaltzaleen Topagunea. (2019). *Euskarak 365 egun Lan ildoaren baitan EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz ekimena* (memoria). Euskaltzaleen Topagunea, Durango, Bizkaia.

Gurrutxaga, L. (2014). Euskararen erabilera eta normalizazioa epaitegietan: ekimenak eta emaitzak. *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, (2), 1-11 or. Eskuragarri in:

<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Zuzenbide/article/view/11903/10935>

[https://www.berria.eus/paperekoa/1744/030/001/201511/hizkuntza\\_hegemonikoa\\_ahaztuta\\_biziko\\_nai\\_zhilabetez.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1744/030/001/201511/hizkuntza_hegemonikoa_ahaztuta_biziko_nai_zhilabetez.htm)

Illaro, A. eta Mtz. de Lagos, I. (2018). Euskaraldia, ohiturak aldatzeko aktibazio ariketa. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*. (107), 65-78 or. Eskuragarri in:

<http://www.soziolinguistika.eus/node/6805>

Jauregi, P. (2000). Kuadrillategi Proiektua. *Hik hasi*, (48), 8-15 or.



Krause, M. (1995). La investigación cualitativa: un campo de posibilidades y desafíos. *Revista de Temas de Educación*, 7, 19-39 or. Eskuragarri in: <https://investiga-aprende2.wikispaces.com/file/view/Inv-cualitat-Krause.pdf>

Larrañaga, N. (2003). Euskal gaztetxoek jarrerak euskararen etorkizuna aurreratzen. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 47, 159-172 or. Eskuragarri in: <http://www.soziolinguistika.eus/node/1013>

Loidi, A. (2019). Mintzalagunen familia handia. *Hirutxuloko Hitza*. Eskuragarri in: <https://irutxulo.hitza.eus/generoak/iritziak/mintzalagunen-familia-handia/>

Mesthrie, R. eta beste, (2000), *Introducing Sociolinguistics*, George Square, Edinburgh, Eskozia: Edinburgh University Press.

Mtz. de Lagos, I. (2018). Euskaraldia: inertziak apurtu, hizkuntza ohituratan eragin. *Administrazioa euskaraz*, (99), 19-20 or. Eskuragarri in: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6274540>

Ochoteco, J. (2018ko urriaren 20an). Elkarrizketariak ofrezte espacios para hablar en euskera a quienes empiezan a aprenderlo. *El Diario Vasco*. Eskuragarri in: <https://www.diariovasco.com/bidasoa/irun/elkarrizketariak-ofrece-espacios-20181020010746-ntvo.html>

Palacios, L. (2017). *Euskaraldia, hizkuntza ohituren aldatzetan lan egitea helburu duen egitasmoa* (aurkezpen argibidea). Euskaltzaleon Topagunea, EAE. Eskuragarri in: [https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2018/06/PO\\_euskaraldia-aurkezpena-nafarroa\\_180314.pdf](https://euskaraldia.eus/wp-content/uploads/2018/06/PO_euskaraldia-aurkezpena-nafarroa_180314.pdf)

Pita, S. eta Pértegas, S. (2002). Investigación cuantitativa y cualitativa. *Cad. Atención Primaria*, 9, 76-78 or. Eskuragarri in: [https://www.fisterra.com/mbe/investiga/cuanti\\_cuali/cuanti\\_cuali2.pdf](https://www.fisterra.com/mbe/investiga/cuanti_cuali/cuanti_cuali2.pdf)

Rodríguez, G., Gil, J. eta García, E., (1996), *Metodología de la investigación cualitativa*, Granada, Espainia: Aljibe.

Zabala, J., Amonarriz, K., Joly, L., Etxeleku, I., Zabaleta, O., Paya, X., Anaut, D., eta Gaztelumendi, B. (2007). Gazteak eta euskara. *Argia Larrun*, 106 (2007), 1-20 or. Eskuragarri in: <http://www.argia.eus/astekaria/docs/2007/azala/larrun-106x.pdf>

Zalbide, M. (2015). Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola. *Euskera*, 60, (1), 19-48 or. Eskuragarri in: <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80467.pdf>

Zapata, O. (2007). Mintzapratika programak: euskararen erabileran eragiteko tresna eraginkorrak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (62), 119-124 or. Eskuragarri in: <http://www.soziolinguistika.eus/files/Oskar%20Zapata.pdf>

**Sakontze egitasmoa.** Asmoz Fundazioa eta EHU

Zarraga, A. eta beste, (2010), *Soziolinguistika Eskuliburua*, Vitoria-Gasteiz, Espainia: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

## 7. Eranskinak

### I. Eranskina: Euskaraldiaren inguruko inkesta

#### Euskaraldiaren inguruko inkesta

EHU arduradun izaki, soziolinguistikako graduondoko bat ikasten nabil. Bete beharreko sakontze egitasmorako, aukeratutako gaia honakoa da: euskararen aldeko ekimenek duten eragina hura indaberritzeko eta normalizatzeko orduan. Azterketa horretan, Euskaraldia hartu dut oinarri eta ikergai, hori erabilera areagotzeko, inertiak astintzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko baliagarri gertatu den ezagutzeko.

Esanak esan, eta ondo baderitzozu, Euskaraldiaren inguruko inkesta hau bete ezazu, ahal dela zintzotasun handienarekin.



- **Sexua:**
  - Emakumezkoa
  - Gizonezkoa
  
- **Adina:**
  - 16-18
  - 19-29
  - 30-39
  - 40-49
  - 50-59
  - 60-69
  - 69tik gora
  
- **Bizitokia (lurralde historikoa aipatu): .....**
  
- **Bizigunea**
  - Hiriburua
  - Herria
  
- **Oro har, euskaraz ala erdaraz bizi zara? Egunekoaren batez bestekoa atera.**

- Euskaraz
- Erdaraz

• **Zein rolaekin hartu zenuen parte?**

- Ahobizi
- Belarriprest

**Garatzeko galdera**

• **Zein arrazoik bultzatu zintuen Euskaraldian parte hartzera? Labur azaldu.**

.....

• **Oro har, zure ohiko ingurua (jendea, lekuak eta abar) uste baino euskaldunagoa dela nabaritu zenuen?**

- Bai, zeharo
- Erdiz erdi. Kasu batzuetan harritu egin arren.
- Ez. Uste bezain erdalduna da.
- Ingurua euskalduna dut. Ezin du balioztatu.

• **Zer iruditu zitzaizun Euskaraldia? Bat zenbakiak asperraldia eta gogo eza irudikatuko du, eta bostak motibazioa eta kitzikapena.**

- |                       |                       |                       |                       |                       |
|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|-----------------------|
| <b>1</b>              | <b>2</b>              | <b>3</b>              | <b>4</b>              | <b>5</b>              |
| <input type="radio"/> | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> | <input type="radio"/> |

• **Nola baloratuko zenuke zure parte hartzea eta inplikazioa prozesu osoan zehar, oro har?**

- Erabatekoa. Nire rolaren eskakizunak bete-betean bete nituen.
- Kasik erabatekoa. Rolaren eskakizunak erabat bete nituen, salbuespen txiki batzuk tarteko.
- Hala-moduzkoa. Nire rolaren eskakizunak ez nituen bete-betean bete; soilik zenbaitetan.
- Traketsa. Ez nion rolaren eskakizunei ia inoiz edo inoiz ez jaramonik egin.

• **Zure inguruan, 11 egunetan zehar, zurekin batera Euskaraldian parte hartu zuen jendea egon zen. Nola baloratuko zenuke haien inplikazioa ariketarekiko? Ideia orokor bat hartu oinarri.**

- Guztizkoa
- Ia erabatekoa
- Tira; hala-holakoa. Ez ondo, ez gaizki.
- Kaskar samarra
- Zinez traketsa

• **Zein izan zen zuretzat eremu aproposena/erosoena zure rola lasai eta gustura betetzeko, dena delarik ere arrazoa? Bakarra hautatu.**

- Lagunartea
- Lantokia
- Familia
- Eremu publikoa: erakundeak
- Edozein gertatu da eroso
- Bestelakoak:.....

• **Euskaraldia amaitu zenetik denbora dezente igaro da dagoeneko. Ariketak zure bizitzan euskararen agerpena areagotzeko balio izan duela uste al duzu?**

- Bai, zeharo. Erdaraz nituen solaskide askorekin hizkuntza ohiturak aldatzea lortu dut. Aldakuntza nabarmena egon da.
- Bai, nahikotxo. Erdaraz n(it)uen solaskide baten batekin/batzuekin hizkuntza ohiturak aldatzea lortu dut.
- Tira. Lantzean behin eta unean unera, zenbaitekin euskara egon daiteke tarteko, lehen ez bezala; baina hizkuntza nagusiak erdara izaten jarraitzen du.
- Oro har, ez. Ez dut hobekuntzarik nabaritu, eta guztiak berdin darrai, erdararen ildotik, alegia.
- Oro har, euskaraz bizi nintzen eta bizi naiz. Hortaz, ez dut areagotzerik sumatu.
- Bestelakoak:.....

• **Aurreko galderan, Euskaraldiari eskerrak, hizkuntza ohiturak aldatu dituzula adierazi duzu (aldatu ezean, haztatu ez). Gauza zara zehazteko zenbat pertsonarekin aldatu dituzun, gutxi gorabehera?**

- 1-3 artean
- 4-7 artean
- 10ekin baino gehiago
- Inorekin ere ez. Guztiak berdin darrai, erdararen ildotik
- Ez dut aldatu. Nire eguneroko gutzizko hartu-emana euskarazkoa zen eta da.
- Bestelakoak:.....

• **"Ongi dakigu euskara gure herriko hizkuntza dela eta egoera kritikoan bizi dela. Hizkuntza gutxitua da. Hori bai, euskaraldia bezalako ekimenen aurrean, denok agertzen gara hizkuntzaren alde, borroka sozial eta nazional honi atxikimendua ematea oso erraza delako. Gerora, nolnahi ere, gutxi batzuk besterik ez dira euskararen ekintzaile, zaindari eta zinezko erabiltzaile. Beraz, euskararen aldeko ekimenek ezer gutxi balio dute, zeinahi izanik ere; denbora-tarte baterako baino ez". Bat zatoz baieztapen horrekin?**

	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	
<b>Erabat ezados</b>	○	○	○	○	○	<b>Erabat ados</b>

**Garatzeko galdera**

- **Euskaraldia, beharbada, azken urteotan euskara sustatzeko ekimenen artean arrakastatsuen bilakatu dela diote adituek. Zure uste apalean Euskaraldia erabilgarria gertatu edo gertatuko da euskararentzat? Ala betiko hitzontzikeria al da? Arrazoitu zure erantzuna.**

.....

- **Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020 urteko udazkenean egingo dela iragarri dute. Egun, berriz ere parte hartzeko gogorik daukazu?**
  - Bai, biziki gainera.
  - Bai, baina ez edizio honetan bezainbeste.
  - Bost axola litzaidake parte hartzea edo ez.
  - Egiatan, ez dut gogo handirik.
  - Inolaz ere ez.

#### Hautazko galdera

- **Euskaraldiaren inguruko alderdirik hobetuko zenuke? Edo akatsik nabaritu duzu?**

.....

## II. Eranskina: Topaguneko arduradunari egindako elkarrizketa

**1. Gizarte-aldagaiari buruzko galdera:** Aspaldi ez dela Soziolinguistika Klusterrak ondorioztatu zuen emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dutela euskara, lurralde guztietan: espazio publikoan, kalean, euskaltegietan izena ematean... Geure inkestan 53 pertsonak parte hartu dute; horietatik, 32 emakumeak dira eta 21 gizonezkoak.

- *Kasualitate hutsa ez delakoan eta SKri jaramon eginez, emakumeek zergatik erabiltzen dute euskara gehiago? Ba al da arrazoirik? Euskararen etorkizuna dira?*

**K1:** Egia da Euskaraldiari lotuta errealitatea hori izan dela eta lotura daukala egitasmoarekin. Baina hori haratago doa. Nire pertzepzioa da emakumeak gizonetzkoen hegemonia hori hain erabatekoa ez denean –batez ere futbola- lasaiago eta gusturago sentitzen direla eta kultura espazioak halakoak direla gehienak: antzerki emanaldiak, irakurzaletasunari dagozkionak, musika, zinema...eta Euskaraldia. Horrelakoetan, emakumeak gehiengoak direla uste dut.

Euskaraldiaz hitz egiten, emakumeek ikusi egin dute parte hartzeko aukera handiagoa, euskarari bultzada emateko parada eta gehiago identifikatu dira Euskaraldia tresna baliagarria izan daitekeenarekin. Gizonek agian planteamendua dela-eta ez.

Edozein kasutan, gizonek parte hartze txikiagoa dute eta guk nahi dugu parte hartze handia izatea, emakumeena zein gizonena. Eta orekatzen saiatu beharko gara.

**2. Galdera:** % 58,5ek adierazi du bere bizitzan, egunekoaren batez bestekoa aterata, euskaraz bizi dela; % 41,5ek, ordea, erdaraz. Gainera, parte hartutako ezagunen artean zein Euskaraldia Donostia kideen artean Belarriprest bakarra aurkitu dugu.

- *Euskaraldia ez al da zuzendu, batik bat, euskaraz bizi ohi direnentzat, euskaradunentzat, eta ez erdal elebidunentzat, elebidun hartzaileentzat edo elebidun pasiboentzat?*

**K1:** Esan beharra dugu lehen edizioa izan dela eta “egiten ari garela”. Oraindik pedagogia lan handia egin behar dugu. Badaukagu egin dugunaren emaitza, baina ez nahi dugunaren emaitza.

Guk ez dugu uste planteamendua euskal hiztunentzako izan denik bakarrik; izan ere, ariketak tipologia integratzailea dauka. Ahobizi portaera dago, bai, baina belarriprest portaera peto-petoa da ere bestelako ohitura dutenentzat: ulertu bai baina erabili ez. Guk ariketa bat eman genien guztiei non beren ohiko portaerak lekua izango zuen, baina egia da hori azaltzean ahobizi rolean beharbada indar handiagoa jarri genuela. Gainera, elebiko elkarrizketak badakigu ez direla naturalak; eta horretan aurrera egiteko, proposamena eta hartutako rola oso ongi ulertzea eskatzen zuen.

Hortaz, emaitzak bertan dira, zuk emandakoak; eta identifikatu dugu belarriprest jokaera hobetu azaldu behar dugula. 2. ediziorako horretan ari gara lanean, jendeak harrotasun osoz txapa jantzi dezan eta belarriprest aktibo bilaka dadin.

**3. Galdera:** Euskaraldiaren inguruko alderdirik hobetuko zuten galdetu zaienean, baten batek aipatu du ahobizi eta belarriprest rolak ez zirela parekotzat jo, berdin ulertu, eta horrek belarriprest gutxiago ekarri zituela. Ildo beretik, horretan sakontzeko beharra dagoela aurrera begira.

- *Zer irizten diozu horrek esandakoari? Arrazoia al dauka? Lehen ikusi bezala, belarriprest gutxi aurkitu dut.*

**K1:** Lehen edizioa egin da eta bigarrena dator orain, hirugarrena egongo da...Eta honek ez dauka akaberarik. Espero dugu bigarreanean ahalik eta jende gehienak uler dezan zer den belarriprest eta zer den ahobizi eta horiek erosotasunez bizi ditzaten. Besterik gabe ariketa egitea eta haien erabilera areagotzea. Beraz, galderari erantzunda, beharbada, bai, aurreko galderan aipatu dudan moduan.

**4. Galdera:** Inkestatuei galdetu zaienean Euskaraldian zergatik hartu zuten parte, lau izan ziren erantzun orokorrenak: *“Nire hizkuntza-ohiturak aldatzeko”*; *“Euskara bultzatzeko”*; *“Euskararen normalizazioan aurrerabideak emateko”*; eta *“Euskara euskaldunaren eta EHren muina delako”* bezalako eragile izanarazlea. Bestalde, hizkuntza-ohiturak zenbatekin aldatu dituzten galdetu zaienean, joera handienak hauek izan dira: % 47,2k hizkuntza-ohiturak aldatu dituela bat, bi edo hiru pertsonarekin gehienez, % 22,6k ez dituela aldatu zegoeneko euskaraz bizi zelako eta % 15,1arentzat guztiak berdin darraiel, erdaraz.

- *Zer iradokitzen dizute erantzunek eta datuek? Euskaraldiaren asmoa zenarekin asmatu egin da bete-betean, baina lorpenekin? 47,2k bat, bi edo hiru pertsonarekin hizkuntza-ohiturak aldatu izana diagnostiko positiboa al da? Finean, bakar batek baino ez du aipatu 10ekin baino gehiagorekin aldatu dituela hizkuntza-ohiturak (ahobizia) eta gure lagina hagitz euskalduna zen.*

**K1:** Bete-betean ez dakigu, baina asmatu bai. Lehen edizioa izateko, parte hartzaileen kopurua esanguratsua izan da, 220.000 ahobizi eta belarriprest egon baitira; hala ere, eremua zabalagoa da, eta hitzun guztietara heldu behar gara.

Bigarren galderaren inguruan, baietz esan behar dizut. Eremu euskaldun batean bizi zaitezke, baina eremua zabaltzen duzunean –lagunak, lana...-, batez ere Euskadiko eremu soziolinguistiko gehienetan, gero eta zailagoa da guztiak belarriprestak berak ere izatea. Beraz, hizkuntza-ohiturak aldatzea bat, bi edo hiru pertsonarekin oso positiboa da. Eta hamarrekin aldatzea ikaragarria.

Baina zure laginak, esanguratsua eta benetakoa bada ere, ez du islatzen bere horretan Euskadiko batez bestekoa, hain euskalduna izanik. Zure lagina hain euskalduna ez balitz eta belarriprest gehiago egongo balira, horretan bai litzatekela interesgarria jakitea belarriprestek zenbatekin aldatu dituzten hizkuntza-ohiturak.

**5. Galdera:** Inkestatuei Euskaraldia zer iruditu zaien galdetu zitzaie; 1 zenbakiak asperraldia eta gogo eza irudikatzen zuen eta 5ak motibazioa eta kitzikapena. 53 pertsonen artean, 22 erdaraz bizi dira eta horiek, oro har, 4 eta 5eko puntuazioa eman diote Euskaraldiari, salbuespenak salbuespen. Agidanez, euskaraz ondo eta biziki gustura ibili dira. Eta, jaso dugu, halaber, 22tatik erdiak inplikazio eta parte hartze ia-ia erabatekoa izan duela (gainerakoak erdiz erdikoa).

- *Erdaraz bizi direnak 11 egunez euskaraz gustura bizi izan badira – eta inplikatura-, zer dela-eta ez dute urtean zehar euskaraz jarduten, ahobizi jarduten? Zein arrazoi dago horren atzetik?*

**K1:** Euskaraldia baino lehenago edo ondoren? Baliteke batzuek deskubritzea gustura ibili direla eta praktikari eutsi izana. Baina, tira, ohiko hipotesia bestea da.

Kontua da ariketa 11 egunetara mugatzen dugunean, txapa 11 egun horietan daukagula eta bitartean txapak informazio handia ematen digula. Txapa daramaten guztiek euskara ulertzen dute, eta guztiok euskaraz egin ahal dugu horrela. Gaitasuna azpimarratu gabe, maila edozein dela ere euskaraz aritzeko apustua egiten du bakoitzak – euskaraz edo erdaraz erantzunda ere, azkena zilegia delako ere bai-. Horrela, berak bazekien nik banekiela eta nik banekien berak bazekiela, eta erabilerarako “espirala” sortzen genuen. Eta erosotasunez, denok genekielako rolak zer zekarren eta estres linguistikoa delakoa desagertzen zen. Baina autentifikazioa desagertuta eta giro horretatik kanpo egonda, batzuek ulertu zuten euskaraz aritzea 12. egunean amaitzen zela.

Azkenean, guk sortu nahi genuen hori apaltzean, berriro agertzen da: estres linguistikoa; inon idatzita ez dagoen arau hori, hots, ezezagunari badaezpada erdaraz egitea; intseguritatea. Eta



egunerokotasunean eragiten dituzten faktore horiek guztiek eramaten dute ohiko portaera hori izatera; eta helburu guztiz kontrakoarekin topo egitera.

Beraz, normalizazio hori lortu arte, bigarren, hirugarren, laugarren eta enegarren edizioa egingo dugu.

- *(Bat-bateko galdera)* **Orduan jendeak ikurra eramatea bermatzea zegoen lehendik, ezta?**

Ez genuen esan “orain kendu txapak”; baina ez genuen esan ezta mantentzeko.

Azkenean ariketa 11 egunetara mugatu genuen, giro sozialaren parte bat delako arreta/tentsio mediatikoa eta hori denbora luzean mantentzea ezinezkoa da. Batzuek orain badaramate txapa, badakit; adibidez, Korrika egunean deia egin zen, zutenek ateratzeko. Baina, edozein kasutan, guztia 11 egun horietan fokalizatzea zegoen, orain esandakoagatik.

Bestalde, datu modura esan soziologoek diotela 21 egun behar direla hizkuntza-ohitura aldatzeko, portaera finkatzeko. Eta adostasuna oso inportantea da horretarako aurrerabidea emateko.

**6. Galdera:** Inkestatuei honako baieztapena bidali zitzaien, eta 1etik 5era beren desadostasuna (1) eta adostasuna (5) adierazi beharra zuten: “*Ongi dakigu euskara gure herriko hizkuntza dela eta egoera kritikoa bizi dela. Hizkuntza gutxitua da. Hori bai, Euskaraldia bezalako ekimenen aurrean, denok agertzen gara hizkuntzaren alde, borroka sozial eta nazional honi atxikimendua ematea oso erraza delako. Gerora, nolahi ere, gutxi batzuk besterik ez dira euskararen ekintzaile, zaindari eta zinezko erabiltzaile. Beraz, euskararen aldeko ekimenek ezer gutxi balio dute, zeinahi izanik ere; denbora-tarte baterako baino ez*”. Emaitzak nahiko parekoak izan ziren: % 52,8\* erabat ados edo nahiko ados azaldu zen, eta % 47,1 ez ados.

- *Zeu, aditua zaren aldetik, bat zatoz baieztapenarekin? Finean, jasotako emaitzen arabera, Euskaraldia amaitu eta denera % 22,7k besterik ez du lortu bere hizkuntza-ohiturak asko edo nahikotxo aldatzea (eta ikusi behar noraino arte); eta, adibidez, Korrikako ekimenetan dezente dira euskara lasterketan edo egunean zehar erabiltzen eta aldeztzen dutenak biharamunean erdarara itzultzeko.*

\* 1 eta 5 artean 3 hautatu zutenak adierazitakoarekin ados daudela jo da.

**K1:** Gure ahaleginetako bat izan da azpimarratzea Euskaraldia ez zela euskararen atxikimendua agertzeko proposamena. Hori ere bai; inplizituki. Baina alde egotetik egitera proposatzen zen. Euskararen alde egotea ezinbesteko urratsa zen, baina praktikatzea bilatzen zen. Hau euskararen aldeko manifestaldiaz, Ibilaldiaz edota Korrikaz – euskararen normalizazioaren aldeko, eta AEK babesteko, ekitaldi masibo zoragarria- ezberdintzen zen; egitea, praktikatzea, euskaraz bizitzea zen proposamena.

Zentzu horretan, borroka sozial eta nazional honi atxikimendua ematea erraza denik erlatiboa da; ez da erraza. Inguru erabat erdaldun bat duenarentzat 11 egunez ahobizi edo belarriprest aritzea oso erraza ez da. Ahalegin bat eskatzen du, determinazio bat, kontzientzia linguistikoa eta egoeraren analisisa. Errazagoa izango da, agian, testuinguru euskalduna dutenentzat; eta horretan, baita ere, ez da guztiz sinplea.

Behin hori esanda, baieztapenarekin ni ez nago ados. Uste dut ekimen guztiek balio dutela, Korrikak eta edozeinek; epe luzera eragina dutelako eta ondorio praktikoa bat dutelako. Gainera, Euskaraldiak eragina dauka jokaeretan eta, hortaz, baieztapenarekin ezin ados egon.

Azkenik, esan nahi dut ez dela batere erraza, ezta ere, euskararen aldeko giro sozial bat sortzea, aldekotasuna, eta jendartearen jarreretan eragitea; eta Euskal Herrian hori badago. Euskararekiko kontrakotasuna balego hori bai litzatekela arazoa.

**7. Galdera:** Euskaraldia, zinez, arrakastatsua gertatu da, eta Euskaraldiko antolatzaileok horrela berretsi dute (balorazio ofizialak irailean irtengo diren arren). Gure laginari so eginez, gainera, 2020an egingo den Euskaraldian gogotsu parte hartuko duen galdetu zitzaionean, % 81,1ek baieztatu berribila eman zuen. Eta, horrekin batera, askok *kontzientzia pizteko, beldurra eta konplexuak kentzeko eta aldaketa bati hasiera emateko* balio izan duela diote.

Nolanahi ere, beste askok diote *euskaraz bizi zirenentzat* edo *euskararekiko kontzientzia piztuta zutenentzat soilik izango dela arrakastatsua, erdaraz bizi direnentzat ekimena ahituz* doalako.

- *Bat zatoz lehendabizikoekin ala bigarrenekin? Ala erdiz erdi?*

**K1:** Zuk imajinatu: serie bat hartzen dugula eta lehenengoan gora doala; bigarrena gorago; hirugarrena gorago baina laugarrenean hasten dela behera egiten. Horretan esango genuke ahituz doala. Baina lehendabiziko edizioa izanda ahituz doala pertzepzio pertsonala izan daiteke, erreal eta zilegia izan arren. Baina guk ez genuke esango hori antzemateko aukerarik izan dugunik oraindino.

Eta, beraz, ezin naiz bat etorri ere *euskaraz bizi zirenentzat* edo *euskararekiko kontzientzia piztuta zutenentzat soilik* arrakastatsua izango deneko horrekin. "Soilik" horrekin ezin naiz ados egon. Azkenean, euskaraz bizitzen saiatzen garenontzako eta kontzientzia dugunontzako lagungarria izan daiteke beste euskaldun bat identifikatzen dugulako, ekarpena egiten dugulako; baina aldi berean arrakasta berbera edo gehiago izan dezake arrazoia edozein delarik ere praktika mugatua duenarentzat. Ariketarekin erosotasuna eta giro konplizea sortzen delako.

**8. Galdera:** Euskaraldiaren inguruko ahuleziei buruz galdetzerakoan, askok aipatu dute administrazioaren, hots, esparru publikoaren inplikazioak handiagoa izan beharra zuela eta, era berean, enpresen parte-hartzea gehiago bultzatu behar zela. Horren harira bi itaun:

- *Euskaraldian zehar babes instituzional handiagoa behar zela diote: konpromisoak, neurriak eta arauak. Ados zaude? Zertan hobetu behar du esparru publikoak hurrengorako? Zeintzuk izan behar dira babes neurriak?*

- *Enpresen parte-hartzea nola bultzatu beharra dago? Non eragin behar da zure ustez?*

**K1:** Hasteko, ados. Handiagoa izan behar du, konpromisoen, neurrien eta arauen aldetik. Euskaraldiak 1. ediziorako definituta zuenaz bestera gehiago egin zitekeen.

Kontua izan da sustatzea, norbanako kideek parte hartzea, 1. edizioa norbanakoen edizioa izan baita. Baina bigarrenak integratzen du galderan galdetzen duzuna: orain eskatu zaiona, adibidez, Gasteizko Udaleri edo Osakidetzari ez da izango norbanakoen artean sustatzea belarriprest edo ahobizi izan daitezen. Hori mantenduko dugu, baina erakunde guzti-guztiei eskatu zaiena enplazamendua izango da: zuen kideak animatzeaz gain, zuek ere entitate moduan parte hartzea. Kasu honetan norbanakoak gehi entitateak. Hori entitate publikoei eskatu zaie, baina baita kirol eta kultur elkarrekin; entitateak taberna hura, Gaztetxea eta zure herriko abesbatza-taldea ere direlako.

Gero, araei begira, gai labainkorra da. Azkenean, erakunde publikoek euskara hizkuntza ofiziala izatea araua da, legea da. Ez dago euskaraz ez artatzerik, baina gero ez da betetzen. Erakunde pribatuetan, non legeak ez duen eskatzen, borondatezkoa izango da: kirol eta kultur arloan, industria eremuan, elkartegintzan...

Eta neurriak lantzen ari gara orain; beraz, ezin erantzun.

Babes neurrien inguruan, ahobizi eta belarriprest izango direnak babesteko praktikak garatu beharko ditugu.

**9. Galdera:** Inkestatuei beren rola betetzerako orduan zein izan den eremu aproposena galdetu zaienean, aukeren artean hauxe erantzun dute: % 24,5ek lantokia; % 24,5ek lagunartea; % 15,1ek familia; % 9,4k eremu publikoa; % 24,5ek arestiko edozein esparru (oro har, 3. gune soziolinguistikoko udalerrietan bizi direnek); eta %1,9k bestelakoak.

Sakon miatu ostean, aztertu dugu erdaraz bizi direnak testuinguru oztopatzailean bizi direla, guztiak lehen gune soziolinguistikoa, eta 3k baino ez dutela aipatu eremu publikoa esparru erosoan gisa.

- *Jakinda testuinguru horietan lagunartean edo lantokian eragina izatea edo hizkuntza-ohiturak aldatzea zein zaila den, esparru publikoak ez al du hausnartu beharrik? Beharbada Euskaraldia ez da sektore guztietara behar bezainbeste ondo heldu, ezta garrantzitsuenetara ere?*

**K1:** Aurrekoan gutxi-gorabehera erantzun dizut. Baina Euskaraldia sektore guztietara beharbada behar bezainbeste ondo heldu ez dela? Seguru. Behar dena ikaragarria da, beharko genukeena. Lehen esan dizudan moduan, ez gaude egiten eta “ya”; egiten ari gara oraindik. Gauza asko lortzen ari dira, baina beste asko falta dira.

2. edizio honetan entitateetara goaz, neurriak hartu ditzaten eta bermatu dezaten nahi duenak egingo duela euskaraz. Esparru publikoak hausnartu behar du, Euskaraldia azken finean horretara gidatuta baitzegoen. Guk esparru pribatua –familian, lagunartean, bikotekidearekin erabiltzen duzun hizkuntza- ezin dugu eragin, nolabait, norbanakoek erabakitzen dutena baita.

**10. Galdera:** Inkestatu ditugun batzuek adierazi dute Euskaraldiak jarraitasuna eta iraunkortasuna behar duela, maiztasuna, alegia. Behin egiteak ez duela ezertarako balio.

- *2020 urtean berriro egingo dela igarri da; baina noiz arte egon beharko gara Euskaraldia egiten hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskara sendotu arte? Eta batetik besterako denbora-aldia handiegia al da edo neurritzkoa?*

**K1:** Lehenengo edizioak ezaugarri batzuk izan ditu, eta hurrengo edizioak progresibitatea izango du. Progresibitatea elementu oso inportantea izango da. Hurrengoa izango da norbanakoak eta entitateak; lehen esan dizudan moduan. Eta progresibitatearen barruan ere iraupena luzetxoagoa izango da: 11 egun izan beharrean, 15 egun datoz. Eta, horrekin, guk 2019-20rako proposatuko dugu bi urtean behin ariketa sozial masiboa egitea.

- *(Bat-bateko galdera) Orduan horri ondo deritzozue? Bi urtean behin egiteari? Ez dela ez tarte handiegia ez txikiegia.*

**K1:** Bai, hori da. Eta beitu; hor erabaki batzuk hartu behar izan ditugu tartean, eta parte hartzen zuten batzordeei galdetegi batzuk pasa zitzaizkien. Eta galderetako bat hori zen. Zenbatero egin beharko litzateke Euskaraldia? Batzuek urtero esaten zuten; batzuek olinpiada moduan lau urtean behin. Askotariko erantzunak.

Baina kontuan hartu behar dugu honek “digestioa” behar duela; gizarte prozesuak motelagoak direlako. Eta antolakuntza aldetik ere prozesu bat behar da. Esaterako, 2018ko ariketaren emaitzak ezagutuko ditugu 2019ko irailean, eta, beraz, 2019an berriro egingo bagenu, ezin.

Baina ariketa sozialaz ari naiz, tartean prestakuntza saioak egongo direlako, batzordeak aktibatuko dira, boluntarioak prestatuko dira, entitateetara joaten ibiliko gara, estrategia komunikatiboa dagoeneko sortuta mezuak gizarteratzen hasiko gara eta abar. Ariketa soziala da bi urtean behineko “ginda”, baina aurretik gauza asko egongo dira.

- *(Bat-bateko galdera) Eta zer urtera arte jarraituko dugun Euskaraldiarekin iragartzen duzue?*

**K1:** Noiz arte jarraituko beharko dugun euskaldunok halakoak egiten... Euskaraldia hain justu ez dakigu, baina zeozer ezberdina aterako litzateke bestela. Gurea hizkuntza gutxitua delako eta oso egoera ahulean bizi delako. Europan globalizazioak daukan eragina daukagu, XXI. mendean gaude eta gure hizkuntza kideak –elebidunak gara euskaldun guztiak- ez dira bablea eta kroata. Frantsesa eta gaztelania dira –*el español*-; lehiakide hutsak. Eta zuk, ni baino 30 urte gazteago izan zaitezke, ez duzu euskararen normalizazioa ezagutuko. Beraz, horrelako ekimenekin jarraituko dugu luze.

- *(Bat-bateko galdera) Honetan ibiltzen, irakurtzen... Gotzon Garatek aipatzen zuen Estatu bakar bat behar dugula normalizazioa lortzeko, independentzia behar dugula euskara bermatzeko. Ados zaude horrekin?*

**K1:** Txillardegik aipatzen zuen: Estatuarekin nekez lortuko dugu euskara salbatzea; estaturik gabe ziur ezetz. Funtsean, bai.

Bitartean, XXI. mende honetan pentsatu behar dugu estatuen funtzioetan; aniztasunak bizi gaitu. Hemen eta mundu osoan. Estatu bat-hizkuntza bat leku bakar batean da egia: Islandian. Gainontzeko guztietan hizkuntza-aniztasuna dago. Orain, modua da estatuek zer tratamendu ematen dioten horiei.

**11. Galdera:** Arestian ikusi legez, Euskaraldia arrakastatsua bilakatu da, eta gure laginak hala baietsi du: % 75,5ek dio bere inplikazioa erabatekoa/kasik erabatekoa izan dela eta beren ingurukoena guztizkoa/ia guztizkoa izan dela dio % 66,1ek. Eta ez hori bakarrik: esate baterako, 21. Korrikak azken edizioetan baino jende gehiago bildu du eta mintzapraktika programen eskariak gora egin du.

- *Euskararekiko gero eta atxikimendu handiagoa dago izan euskaradunen artean izan erdal hiztunen artean? Herralde euskaldun baterako aurrerapauso zuzenak ematen ari gara? Ala ameskeria baino ez da?*

**K1:** Ez da ameskeria. Momentu batean atxikimendua aipatzen duzu, eta hori da aldeketasuna. Araban garela aipatu Iñaki Martínez de Luna soziologoak arreta handia jartzen diela jarrerari, leku guztietan eta Araban ere, eta bere hainbat lanetan bilduta du duela 20 urte aurkako multzo bat zegoela -orain ere badago- baina askoz ere txikiagoa. Eta euskararen normalizazioaren aldeko neurriak X ziren, eta gaur askoz gehiago dira. Atxikimendua oso inportantea da horretarako eta jendarteak euskararen normalizazioaren aldeko jarrera izatea, euskararen aurkako giro batean urratsa ematea oso zaila litzatekelako.

Orain atxikimendu hori aktibatu behar da eta Euskaraldia hori aktibatzeke ariketa izan da; aldeketasun hori aktibatzea, eta aktibatzea da erabiltzea. Beraz, aurrerapauso zuzenak dira, ez da ameskeria. Bestelakoak egin beharko genituzke, baina ondo goaz.

Adibidez, kontzientzia linguistikoa zabaldu behar dugu; gure egoerak eskatzen du hori. Ze denok gara elebidunak, denoi erosoago egingo litzaziguke erdaraz egitea eta estres linguistikoa kendu eta “yasta”. Euskaraz egiten dugun gehienok hautu kontziente bat egiten dugu eta hautu hori elikatu behar da; eta elikatzeke modua da ezagutaraztea hizkuntza honek ez daukala etorkizuna bermatuta. Hizkuntza hau desagertu liteke. Aldaketa ekonomiko sakon batek eragin dezake aldaketa soziologiko eta soziolinguistikoa.

Jendeak momentuan esaten du - EAEn ari naiz- umeak eskolatuta daudenez, euskaraz jakingo dutela. Azaldu behar zaie – eta horretarako soziolinguistikako kontzeptu batzuk, gutxi, eduki- ezagutzarekin ez dela nahikoa; erabilera dela klabea. Eta erabilera ez dela automatikoki etortzen, hau da, euskaraz jakin

eta euskaraz egin ez dela automatikoa duela 40 urte uste zen bezala. Erabilerarako ekosistema egoki bat sortu behar da, non ingurunearen aldeketasuna dagoen, non ulermen unibertsala dagoen, non kontsulta linguistikoa dagoen, non baliagarritasuna dagoen –hizkuntzak zeozertarako balio duela-, non satisfazioa dagoen – hizkuntza ez bakarrik ikasteko, asignaturarako, azterketarako, perfiletarako-. Hori guztia jendearengan zabaldu behar da; oso zaila da hori pentsaraztea, baina horretarako pausoak eman behar dira.

Hizkuntza galbidean zegoen duela 60 urte; belaunaldi batzuek buelta eman diogu gainbeherari eta hori ikaragarria da. Eta horren protagonistetako bat gara. Baina kontuz; erlaxatzen bagara, akabo.

***Balorazio orokorreko itauna:***

**12. Galdera:** Euskaraldiarekin zuk izandako bizipenei buruzko galderak:

- *Zein da Euskaraldiari jartzen diozun puntuazioa edo balorazioa?*

**K1:** Antolatzaileok badugu hobetzeko: hobetu beharra –HB-. Baina ikusten ditut gauza zoragarri asko ere bai – arau sozialarena aldatzea-. Emaitzek esango dute esango dutena, baina hori oso gauza zoragarria da. Orduan gizarte modura, jendarteari, 7 bat jartzen diot.

- *Labur ezazu Euskaraldia esaldi batekin, ahal dela.*

**K1:** (...) “Hizkuntza-komunitate bat bere etorkizuna eraikitzen”.